

ESKOLARTEKO IPUIN LEHIAKETA

XXXIII. edizioa

2 0 2 1



Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO

ESKOLARTEKO IPUIN LEHIAKETA

XXXIII. edizioa

2 0 2 1

*Mig
Rafael Koleta*

Fotokonposizioa eta Fotomekanika:

TECNIGRAF, S.L.L.

Inprimatzailea:

TECNIGRAF, S.L.L.

Lege Gordailua: BI 00717-2021

Liburu honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



Rafael Mikoleta lehiaketak hiru hamarkada baino gehiago daramatza euskal kultura eta gazteen talentu sortzailea sustatzen. Urte horietan guztietan, letrekin eta idazketarekin duzuen gaitasuna eta trebetasuna erakutsi duzue.

Aurten 8 eta 18 urte arteko 922 neska-mutilek hartu duzue parte lehiaketan, eta hainbat gai jorratu dituzue. Alde batetik, talde-lana, adiskidetasuna, enpatia, solidaritatea eta maitasuna bezalako baloreei buruz idatzi duzue.

Bestetik, gizartean denen ahotan dabiltzan gaiez aritu zarete. Ez da erraza gai horietariko batzuen gainean hitz egitea, baina ondo baino hobeto mahaigaineratu dituzue: immigrazioa, emakumeen aurkako indarkeria, suizidioa, ingurumena...

Horrez gain, mundu fantastikoek ere izan dute beren lekutxoak. Horien bitartez, argi geratu da zein irudimentsuak zareten. Eta nola ez, koronabirusak mundua astindu duen urte honetan, birusak berak idatzitako testu bat ere badago argitalpenean.

Zorionak eta eskerrik asko ipuin-lehiaketan parte hartzeagatik.

Amaia Arregi
Bilboko jarduneko Alkatea

Sariak

Bilboko Udaletxean, bi mila eta hogeita bateko martxoaren hamazazpian, arratsaldeko seietan, epaimahaiburua, epaimahikideak, idazkaria eta Labayru Fundazioaren idazkaritza teknikoa batuta, hauxe erabaki du Rafael Mikoleta XXXIII. Ipuin Lehiaketaren epaimahaiak, aurkeztutako 922 ipuinak aztertu ondoren:

A KATEGORIA (Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak):

1. KONTZERTU ZOROA
Maddi Inaxi Vélez Otaegi
Kirikiño Ikastola HLBHIP
2. ZER DAGO ITSASOAREN BUKAERAN?
Maddi Miguel Garay
Karmelo Ikastola IPI
3. EZ GALDU ITXAROPENA
Maiane Montes Ubeda
Kirikiño Ikastola HLBHIP

B KATEGORIA (Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak):

1. LIBURU BITXIA
Arrate Mallea Botas
Calasancio HLBHIP
2. NIK PENTSATZEN DUT...
Nile Garitano Lafont
Deustuko Ikastola IPI
3. HERRIA HIRIRA
Beñat Atutxa Martín
Kirikiño Ikastola HLBHIP

C KATEGORIA (DBHko 1. eta 2. mailak):

1. DENA EZ DA ESAN BEHAR
Garazi Aretxaga Bustinza
Deustuko Ikastola IPI
2. MINIGONA
Laida Etxebarria Rodríguez
Artxandape Ikastola HLBHIP
3. UNE HONETAN BEHAR ZAITUT
Amaya Salgado Huidobro
Artxandape Ikastola HLBHIP

D KATEGORIA (DBHko 3. eta 4. mailak):

1. NIRE KOPETA-ILE HORIAGATIK
Diego Carneros Regueiro
Nuestra Señora de Begoña LBHIP
2. IZAR BAT OROITZAPEN BAKOITZEKO
Anne Andrés Sánchez
Artxandape Ikastola HLBHIP
3. BIDAIA BAT NIRE AMETSETARA
Uxue Rodríguez Muñoz
Ikasbide HLBHIP

MIKOLETA - BILBAO BALIOEN HIRIA

C KATEGORIA (DBHko 1. eta 2. mailak):

HABIA HUTSIK DAGO!
Peio Elorriaga Legarreta
Kirikiño Ikastola HLBHIP

D KATEGORIA (DBHko 3. eta 4. mailak):

BIGARREN AUKERA
Haizea Maruri San Juan
Karmelo Ikastola IPI

ARGITARAGARRIAK

A KATEGORIA:

- PERNANDO ETA PILOTA, Iraia Lana Estébanez, Kirikiño Ikastola HLBHIP
- TXORIGORRI, Oihan Etxebarria, Mujika HLHI
- ESPAZIOAREN BILA ESPAZIOAN, Ander Merino Etxabe, Karmelo Ikastola IPI

B KATEGORIA:

- ZUZENDARI IRUZURTIA, Raymond Daniel Asiedu, Intxixu Ikastola HLHI
- GABONETAKO ZUHAITZAREN DESAGERPENEA, June Riloba Hernández, La Salle Bilbao HLBHIP
- EZ UTZI INOIZ AMESTEARI, Aiala Rodríguez Ritchie, Deustuko Ikastola IPI

C KATEGORIA:

- ABENTURA MUSIKALA, Sara Segade Ganuza, Ignacio Ellacuria-Zurbaran BHI
- ZABORRIK GABE ASKOZ HOBETO, Elvira Nuño Crespo, Ikasbide HLBHIP

D KATEGORIA:

- ETORKIZUNA, Carolina Alonso Álvarez, Ikasbide HLBHIP
- EGUN EURITSUA NEW YORK-EN, Ainara Salas Gómez, San Adrián BHI

Koldo Narbaiza Olaskoaga, epaimahaiburua

Ziortza Artabe Etxebarria (Labayru Fundazioa), idazkaritza teknikoa

Lutxo Egia del Rio, epaimahaikidea

Igone Etxebarria Zamalloa, epaimahaikidea

Irene Urrizelki Berro, epaimahaikidea

Txani Rodriguez Hernandez, epaimahaikidea

Juan Ramón Madariaga Abaitua, epaimahaikidea


Julen Gabiria Lara, epaimahaikidea

Goizalde Landabaso Etcheverry, epaimahaikidea

Galder Urzaa Arrien, epaimahaikidea

Nagore Layuno Gerrikagoitia, idazkaria

Mirko
Kolota



A

KATEGORIA

(LHko 3. eta 4. mailak)



KONTZERTU ZOROA

Maddi Inaxi Vélez Otaegi
Kirikiño Ikastola HLBHIP

Eskolarekin mundu biran eman behar zituzten instrumentuek musika klasikoko kontzertuak. Xilofonoa oso harroa zen eta beste guztien gainetik jo nahi izaten zuen. Entseguetan jo eta jo aritzen zen bere txanda ez zenean.

Kontzertu batean, ordea, gainerako instrumentuak altuago jotzen hasi ziren, xilofonoa are altuago eta instrumentuak oraindik ere ozenago. Azkenean, musika klasikoa izan ordez, kontzertu zaratatsua bihurtu zen.


Entzuleak kexu eta haserre ziren, eta triangeluak ingurua lasaitzen saiatu ziren. Batutari abiadura bizian eta etengabe bueltak eta bueltak ematea eskatu zioten. Instrumentu guztiak, horren zaratatsu eta bizkor jotzen, zorabiatu eta isildu egin ziren; guzti-guztiak xilofonoa izan ezik. Baina xilofono harroari ez zitzaion bakarka jotzea gustatzen, eta hura ere isildu egin zen, damututa. Orkestra aztoratu egin zuela konturatu zen, kontzertu klasiko politak talde-lanean lortzen direla baka-rrik.

Kontzertuan, pausa bat egin zuten egoera baretzeko. Xilofonoa barkamena eskatzen saiatu zen, baina taldekideek muzin egin zioten. Hurrengo abestian xilofonoa txintxo-txintxo ibili zen, baina bukaeran bere txanda heldu zenean, lotsatuta, isilik gelditu zen. Aretoa ere isildu egin zen. Batutak, orduan, irribarre egin zion xilofonoari, eta jarraitzeko adorea emanez, apal-apal bere kantu zoragarria jo zuen.

Momentu horretan ohartu zen xilofonoa gainerako instrumentuen doinua kontuan izan gabe ezin zuela zer egin eta nola egin erabaki.

Kontzertuaren amaieran umeak instrumentuengana hurbildu ziren eta, pozez zoratzen, doinu eder horretaz gozatzeko aukera eman izana eskertu zieten.

HALA BAZEN EDO EZ BAZEN, TALDE-LANEAN ASKOZ HOBETO IZAN ZEN.



ZER DAGO ITSASOAREN BUKAERAN?

Maddi Miguel Garay
Karmelo Ikastola IPI

Habiba haur alaia eta jakin-min handikoa da; bederatzi urte ditu, begi beltzak eta ile kizkurra du. Tanger-en bizi da lau neba-arrebekin. Egunero, eskola-tik irten ondoren, amarekin portuko lonjara joaten da arrain bila.

Ama arrainak jasotzen ari den bitartean, Habiba lurrean jesartzen da itsasoari begira. Eta itsasoaren bukaeran zer dagoen begiratzen du, baina ez daki zer dagoen, eta ama etortzean galdetzen dio:

—Amatxo, zer dago itsasoaren bukaeran?

—Ez dakit, Habiba! Gainera, ez daukat horretan pentsatzen ibiltzeko denborarik. Goazen etxera!

Baina Habibak jaki-min handia du, eta etxekoei galdetzen hasi da. Lehenengo, Fátima amamari galdetu dio:

—Amama Fátima, zer dago itsasoaren bukaeran?

—Ai, Habibatxo maitea! Kondairak dio itsasoaren bestaldean aintzinako piraten altxor bat dagoela. Urrez, zilarrez eta harri bitxiz betetako kutxa bat da, eta altxorrera heltzeko gai denak bizitza oparoa eta luzea izango du.

Baina Habiba ez da pozik gelditu amamak kontatutakoarekin, bederatzi urte dituelako eta ez duelako altxor magikoetan sinisten. Orduan, bere neba nagusia-rengana joan eta galdetu dio:



—Yousef, zer dago itsasoaren bukaeran?

—Nik zer dakit! Telebistan ikusi nuen etxe altuak, jende asko eta ke ugari dau dela.

—Ez esan gezurrik, Yousef, nik portutik ez dut hori ikusten. Etxeak hain handiak badira, zergatik ez ditut ikusten?

—Agur jogurt, Habiba, banoa lagunekin! Zuk jarraitu galdetzen, nahi baduzu! Habiba nebarekin apur bat haserretu egin da, gezurra esan diolako bere kontura barre egin ahal izateko. Orduan, gehiago ez galdetzea erabaki du.

Urteak joan dira, 2020ko urtarrilaren 31 da, eta Habibak 17 urte bete ditu. Egun horretan, beste guztietan bezala, amarekin portura hurbildu da arrain bila. Baina gauza berezi bat gertatu zaio.

Gizon altu eta burusoil bat hurbildu zaio eta esan dio:

—Neska, zeri begira zaude?

—Itsasoaren beste aldera begira nago —erantzun dio Habibak.

—Zergatik? —galdetu dio gizonak.

—Itsasoaren bukaeran zer dagoen jakin nahi dudalako.

—Nik lagunduko dizut galdera horri erantzuten. Nahi baduzu, hamar minutu barru, haitz horien atzean dagoen txalupan sartu zintezke eta beste hogeitaz lagunekin batera itsasoaren beste aldera joan.

Habibak hasieran beldur apur bat sentitu du, baina berehala korrika hasi eta txalupan sartu da. Bertan janari eta ur apur bat dago, eta jende asko. Horien artean lau ume.

Bidaia erdian gauza beldurgarriak pasatu dira. Janari gabe eta ur gabe gelditu dira, eguzkiak gogor jotzen du eta erre egin dira... Eta bat-batean ekaitz oso handia etorri da. Tximistak, trumoiak, euria..., eta txalupa kulunkatzen hasi da. Olatuak oso altuak dira eta txalupan zuloak agertu dira. Bat-batean eztanda bat entzun eta Habiba uretara jausi da. Buelbaka hasi da eta konortea galdu du.



Handik ordu batzuetara, Habiba esnatu egin da. Oso mareatuta dago eta ez daki non dagoen. Begiak zabaldu eta bere inguruan jende asko dagoela ikusi du, baina altxatu denean, denak korrika hasi dira. Habiba bakarrik gelditu da hondartzan. Eta pentsatu du:

—Hau al da itsasoaren bukaeran dagoena?

Eta hala izan bazen, sar dadila kalabazan eta atera dadila bakoitzak nahi duen plazan.

EZ GALDU ITXAROPENA

Maiane Montes Ubeda
Kirikiño Ikastola HLBHIP

Paule triste zegoen, oso bakarrik sentitzen zen. Kurtsoa oso gogorra izaten ari zen. Hamabi urte zituen eta eskolan ez zen gustura sentitzen. Azken kurtso honetan ez zuen lagunik, eskolakideek ez zuten kontuan hartzen, patioan beti bakarrik zegoen eta azken hileetan beraren kontra egin zuten. Eskerrak kurtsoa laster bukatuko zela. Baina zer egingo zuen uda osoan lagunik gabe?

Paulek ez zuen konponbiderik ikusten eta egoerak bere izaeran eragina zeukan, energia barik sentitzen zen. Etxetik eskolara eta eskolatik etxera joaten zen, kirola egiteari utzi zion eta asteburuak etxean ematen zituen.

Paulek ez zituen gurasoak kezkatu nahi, baina Iñaki eta Amaia konturatu egin ziren bere alabaren aldaketaz:

—Iñaki, zuk Paule ondo ikusten duzu? Azken bolada honetan ez da etxetik irteten. Kezkatuta nauka. Beharbada lagunekin arazoren bat izango zuen. Ez al dizu ezer kontatu?

—Ez, Amaia, Paulek ez dit ezer komentatu, baina nik ere triste dagoela pentsatzen dut. Beharbada kezkatuta dago datorren kurtsoan institutura joango delako eta lagun berriak egin beharko dituelako.

—Bada, espero dut hori izatea, baina kezkatuta nago. Lagunak Pauleren adinean oso garrantzitsuak dira eta berak ez du ezer kontatzen, baina beti dago etxean sartuta. Zer egingo du udan lagunik gabe?

—Bai, horretan arrazoia duzu, ezin da egon udan etxean sartuta.

Eta bat-batean Iñakik ideia bat izan zuen:

—Eta nire aitaren baserrira badoa? Beti konpondu da oso ondo aitita Aitorregaz.

—Ideia ona da, baserrian beti dago lan asko egiteko eta horrek lagundu egingo dio.

Hurrengo egunean, Pauleri kontatu zioten plana:

—Zer? Aitita Aitorren baserrira? Ezta pentsatu ere! Ni etxean geratuko naiz, hemen oso gustura nago eta baserrian beti dago lana.

—Paule, ezin duzu uda osoan etxean sartuta egon, aitita Aitorrekin pasatuko duzu uda, eta kito! Erabakia hartuta dago —esan zion amak.

Kurtsoa bukatu eta hurrengo egunean, aitita Aitorren baserrira eraman zuten gurasoek Paule. Aitita Aitor asko poztu zen, baina laster konturatu zen Paule aldatuta zegoela. Iritsi bezain laster, logelan sartu zen haserre eta ez zuen handik irten nahi izan.

Baina aitita Aitor oso azkarra zen eta bazekien pazientzia izan beharko zuela Paulerekin. Gauzak horrela, Aitorrek Pauleri laguntzeko plana pentsatu zuen: lanean jartzea, horrela ez zuen izango pentsatzeko denborarik.

Paulek lanean pasatu zuen hurrengo astea; goizean goiz esnatzen zen, eta atsedena hartzeko denborarik gabe, egunak leher eginda amaitzen zituen. Pauleri bereziki asko gustatzen zitzaion animaliei jaten ematea, bera ikustean poz-pozik jartzen ziren eta. Lana gogorra zen, baina disfrutatzen hasi zen.

Handik egun batzuetara, gau batean afaltzen zeudela, Aitor zera galdetzera ausartu zen:

—Paule, zerbait gertatu al zaizu lagunekin?

—Ez, aitita, zergatik galdetzen didazu hori?

—Gurasoak kezkatuta dituzu eta hamar egunean ez didazu lagunik aipatu.

—Bueno, aitita, ez dut ikasturte ona izan. Ez dut lagun handirik izan...

—Paule, gauzak ondo ez doazenean, laguntza eskatu behar da. Zuk bakarrik ezin dituzu arazo guztiak konpondu, eta laguntza eskatzea ausarta izatea da. Ez zaitut gogaitu nahi, baina nik urte asko ditut, gauza asko bizi izan ditut, eta argi dut itxaropena ezin duzula galdu. Ez etsi eta gauza polit asko lortuko dituzu!

Aititaren hitzek pentsarazi egin zioten. Eta bera bazen lagunengandik urruntzen zena?

Bere burua animatzera behartuko zuen, beharbada hurrengo kurtsoak beste leku batean egiteak, beste pertsona batzuekin, lagun berriak egiteko aukera ekarriko zion... Bitartean, uda baserrian emango zuen; disfrutatzen hasia zen. Gau hartan oso ondo egin zuen lo.

Baina hurrengo goizean esnatu zenean, aitita ez zen ondo sentitzen. Ezin zuen arnasa ondo hartu, eta Paulek anbulantzia bati deitu zion eta ospitalera eraman zuten. Aititak neumonia zeukan eta oso nekatuta sentitzen zen. Gelan oxigenoarekin ikusi zuenean, ez zuen bere aitita ezagutu. Aitor guztiz indargabetuta zegoen, baina txarrena bere jarrera zen. Neumoniak berarekin akabatuko zuela zioen, eta, orduan, Paulek haserre horrela esan zion:

—Aitita, ez zaitut horrela hitz egiten entzun nahi. Ez al zenidan atzo esan arazo guztiak ezin direla bakarrik konpondu eta batzuetan laguntza eskatu beharra dagoela? Bada, orain zure txanda da laguntza eskatzeko. Zuk laguntza behar duzu baserriko lanak egiteko eta nik gustura lagunduko dizut. Baina tratu bat egingo dugu: zuk ahal duzun guztia egingo duzu osatzeko eta nik ahal dudana guztia egingo dut nire umorea aldatzeko eta datorren kurtsoa gogotsu hasteko. Baina garrantzitsua, ez galdu itxaropena!

Aititak zin egin zion sendatuko zela, eta Paulek ere bere hitza bete zuen. Gurasoak baserrira joan ziren Paulerekin eta hiruren artean oporrak lanean egin zituzten. Aititak sei aste egin zituen ospitalean, eta etxera bueltatu zenean, dena eginda aurkitu zuen, eta Paule erabat aldatuta.

Iraila heldu zen eta kurtso berriko lehen eguna ere bai. Paulek bere buruari zin egin zion lagun berriak egiten ahaleginduko zela.



PERNANDO ETA PILOTA

Iraia Lana Estébanez
Kirikiño Ikastola HLBHIP

Behin batean, herri txiki batean, Pernando mutil oso jatorra bizi zen. Pernandori asko gustatzen zitzaion futbolean jolastea. Pernandok eta bere familiak ez zeukaten diru asko, horregatik, oso ondo zaintzen zuen bere pilota.

Arratsalde batean, afari orduan, Pernandok betiko lekuan utzi zuen pilota, hau da, etxeko patioan. Afaldu eta gero, ohera joateko prestatu zen.

Hurrengo egunean... Hau ustekabea! Pilota desagertu egin zen. Pernando oso-oso triste jarri zen. Han eta hemen bilatu zuen pilota, baina ez zen agertu.

Pernando lagunarengana joan zen. Markel, bere lagun mina, oso kezkatuta zegoen, Pernandok ez zuelako jolastu nahi.

—Eutsi, lagun! Etorri gurekin jolastera —esan zuen Markelek.

—Ez, ez dut nahi. Oso triste nago —esan zuen Pernandok.

—Lasai, txo! Gurasoei beste pilota bat eskatu eta kito! —Markelek.



—Ez, ezin dut, ez dugu dirurik. Eta, gainera, oraindik asko falta da nire urtebetetze egunerako —esan zuen Pernandok negar malkotan.

Markel beste lagun batzuekin hitz egitera joan zen, Pernandoren arazoa kon-tatzera. Lagunen artean ideia bat bururatu zitzaien: merkatu txikia prestatzea etxe-ko jostailu batzuk saltzeko.



Herriko plazan antolatu zuten, eta, handik bi egunera, bertan agertu ziren lagun guztiak haien bitxikeriak eta jostailuak saltzeko prest.

Hau poza! Denak saldu zituzten, eta lortutako diruarekin baloi berria erosi zioten Pernandori.

—O, niretzat da? Benetan? Eskerrik asko! —esan zuen Pernandok.

—Lasai, lagun! Guztion ideia izan da. Orain goazen denok baloi berriarekin jolastera —esan zuen Markelek.

—Ados! Ideia ona!

Denak oso pozik joan ziren.


LAGUNAK DIRA OPARIRIK ONENA.




TXORIGORRI

Oihan Etxebarria
Mujika HLHI

Bazen behin Txorigorri deitzen zioten txoritxo bat. Lagunek horrela esaten zioten, izugarri haserretu eta gorri jartzen zelako. Egun batean, zizare bat ehizatzaera joan zen Txorigorri, eta bila zebilela, ezkur bat burura jausi zitzaion. Asko haserretu zen, baina zizarea bilatzen jarraitu zuen.






Geroago, zuhaitz baten adar batean zizare bat aurkitu zuen eta jarraitzen hasi zitzaion. Momentu batean, zizarea hartzera joan zenean, bere mokoa zuhaitzaren adarrean sartuta geratu zitzaion eta zizareak ospa egin zuen. Mokoa adarretik



lehenbailehen askatzea lortu zuenean, zizarearen atzetik joan zen berriro, gelditu gabe. Txorigorri hain azkar joaten ari zenez, zuhaitz horren kontra aurpegian kolpea hartu eta lurrera erori zen.





Zizarea betiko galdu zuela ikusita, habiara joan zen, eta haserrealdi handi eta gorri batean, hegoekin habia guztia apurtu zuen. Geroago, lasaitu zenean, Txorigorri konturatu zen bere habia apurtu zuela haserrearen erruz, eta oso triste jarri zen. Momentu horretan konturatu zen haserrealdiak hobeto kontrolatu behar zituela.

Hortik aurrera, haserretzen zenean, gorri jartzera ez heltzen saiatzen zen, laranja bakarrik jartzen zen.



ESPAZIOAREN BILA ESPAZIOAN

Ander Merino Etxabe
Karmelo Ikastola IPI


2045. urtean, Michael Aldrin izeneko gizon batek NASAn lan egiten zuen. Egunkaria egunero irakurtzen zuen lagun bat zeukan. Egun batean, NASAk lau pertsona zizare-zulo batera eraman nahi zituela irakurri zuen. Lagunak Michael Aldrini esan zion egunkarian aurkitu zuena.

Otsailaren 24an, Michael Aldrin gosaltzen ari zen bitartean, dardarka hasi zen. Izugarri urduri zegoen bere lagunak kontatu zion albisteagatik. Autoa martxan jartzen ari zela, zer gertatuko ote zen pentsatu zuen. Bidean zihoala, ez zuen aurretik zetorren autoa ikusi, bolante-kolpea eman behar izan zuen, eta errekan bukatu zuen. Konortea galdu zuen une batez, eta begiak irekitzean, bere buruzagia, Neil Collins izenekoa, ikusi zuen. Buruzagiak, espazio-ontzi batera gidatu zuen. Espazio-ontzi barruan hiru gizon zeuden, eta horietako batek burua biratu zuenean, bere laguna zela jabetu zen Michael Aldrin.

—Zer egiten duzu hemen? —galdetu zion.

—Zu espazio-ontzian ikusi nahi zaitut, horregatik programa espazialean zure izena eman dut —erantzun zion lagunak.

Michael Aldrinek harridura aurpegiaz begiratu zion lagunari. Hiru minutu geroago, espazio-ontzia aireratu egin zen: 9, 8, 7, 6, 5, 4, 3, 2, 1..., 0! Lurretik zazpi kilometrora zeudela, alarma batek jo zuen espazio-ontzi barruan. Espazio-on-



tziak 7,6 litro erregai baino ez zeuzkan depositu batean. Beraz, nahiz eta espazioan egoteko erregai nahikoa izan, bidaia laburragoa egitera behartuta zeuden. Atmosfera zeharkatzeko minutu bat behar izan zuten. Espaziora heltzean, Michael Aldrin-en lagunak ur botila bat ireki zuten eta ura espazio-ontzian zehar jira eta bira hasi zen. Espazio-ontzi barruan, grabitate barik, izugarri gozatzen hasi ziren.

Orduan, NASAk komunikatu zien zizare-zuloa ilargitik 15 kilometrora zegoela. Lau astronautak agintean ipini ziren eta geratzen zitzaien erregaiarekin munduari hiru orbita egin zizkieten. 25. egunean, ilargira iritsi ziren. Zizare-zuloan zeudenez, lau gizonak oso urduri jarri ziren, baina bat-batean, Michael Aldrinek argi bat ikusi zuten leihatilatik begiratzean, eta helburua begi-bistan zuela esan zuten.


Zizare-zulotik atera zirenean, zizare-zuloa zeharkatzeko zenbat denbora igaro zuten kalkulatzeko hasi zen Phibie Shepard astronauta; Michael Aldrin-en lagunak lagundu zion Phibieri kalkuluak egiten. 38 urte igaro zituztela esan zuten Phibiek.

Espazio-geltoki bat aurkitu zuela ohartu zen Michael. Lagunak esan zion egunkari hartan espazio-geltoki horren berri ere ematen zela. Orduan, espazio-geltokiarekin bat egin zuten. Barruan, lau egunez egon ziren.


NASAk Phibieri esan zion Lurrera itzuli behar zutela. Beraz, depositua bete zuten. Hamalau minutu igaro ziren atmosfera zeharkatu zuten arte. Jarraian, jausgailua piztu eta, ziztu-bizian, Indiako Ozeanora jausi ziren astronautak. Laurak NASAko Kennedy Zentrora helikopteroz itzuli ziren, bidaian lo eginda.

—Michael, Michael! —Michaelek begiak ireki zituen.

Ospitale batean zegoen, medikuz inguratuta. Orduan konturatu zen berak bizi izandako guztia amets bat baino ez zela izan. Hala ere, Michaelek honako hau ikasi zuten: ametsetan, bere espazioa izatea lortu zuten, espazio mugagabea.



Wij
Daarvoor
Kalela



B KATEGORIA (LHko 5. eta 6. mailak)



LIBURU BITXIA

Arrate Mallea Botas
Calasancio HLBHIP

Bazen behin Margot familia. Milioika liburu zeuzkan, baina horietako bat zen garrantzitsuena. Bitrina batean zegoen eta oso potoloa zen, botere bat zeukan. Liburua ezkutatzea erabaki zuten, inork ez aurkitzeko.

Mende bat pasa ostean, familia hori hilda zegoen eta beste familia bat etorri zen etxe horretara bizitzera. Familia horrek bi ume zeuzkan, Maialen eta Ekaitz. Maialenek bederatzi urte zituen eta Ekaitzek hamaika. Maialen askoz txikiagoa eta barregarriagoa zen; Ekaitz, ordea, argalagoa eta serioagoa.

Etxea oso handia zen, logela asko eta lorategi handiak zeuden. Lorategiko portxean eskultura oso arraroa zegoen. Eskultura hori neska batena zen, eta esku artean kaliza zeukan. Neskaren azpian testu bat zegoen, eta haxe zioen: «Etxeko urrea ipini eta bidaia egingo duzu». Ekaitzek eta Maialenek ez zuten ezer ulertu. Bat-batean aitzak afaltzera joateko dei egin zien.

Afaldu eta gero, haien logelara joan ziren lo egitera. Gaueko hirurak ziren eta Maialenek soinu batzuk entzun zituen sukaldean. Sukaldera joan zen eta bertan munstro txiki bat ikusi zuen jaten. Oihuka eta korrika hasi zen eta nebaren logelara joan zen. Maialenek Ekaitz esnatu eta oihuka esan zuen.

—Ekaitz! Munstro txiki bat dago sukaldean.

—Ez esan gezurrik eta utzidazu lo egiten —esan zuen Ekaitzek ia lotan.

—Ez nago gezurra esaten, egia da. Sukaldera joan eta ikusi zure begiekin —esan zuen Maialenek.

—Tira! Ongi da, goazen sukaldera —esan zuen Ekaitzek.

Ekaitz eta Maialen sukaldera joan ziren, hori bai, Ekaitz Maialenen aurretik. Sukaldera ailegatu zirenean, munstro txikia ikusi eta Ekaitz berarengana joan zen. Munstroa dardarka zegoen.

—Lasai, ez dizugu ezer egingo —esan zuen Ekaitzek.

—Ka-ka-kaixo, Estunfis naiz, familiaren etxeko animalia —esan zuen munstroak.

—Etxeko animalia!? —esan zuten Maialenek eta Ekaitzek harrituta.

—Bai, liburua aurkitzen lagunduko dizuet.

—Zertaz hitz egiten ari zara? —galdetu zion Maialenek.

—Liburu bitxiari buruz. Ez dakizue zer den? —esan zuen Estunfisek.

Orduan, Estunfis liburu bitxiaren istorioa kontatzen hasi zen.

—Duela mende bat, milioika eta milioika liburu zeuzkan familia bat... —hasi zen—. Liburu batek botere bat zeukan. Botere hori...

Baina bat-batean gurasoak sukaldean sartu ziren erdi lotan.

—Zer egiten ari zarete sukaldean ordu hauetan? Zoazte ohera oraintxe bertan! —esan zuen amak.

Eta bakoitza bere logelara bueltatu zen. Hurrengo goizean, Ekaitz eta Maialen Estunfis bilatzen hasi ziren etxe barruan, baina ez zuten ezer aurkitu. Biak lorategira joan ziren eta bertan zegoen.

—Zer, nire bila? —esan zuen Estunfisek.

—Baina magia egiten duzu? —galdetu zion Maialenek.

—Bai, noski, iratxo magikoa naiz —esan zuen Estunfisek.

Estunfisek magia trikimailu batzuk egin zituen haientzat, baina Maialenek eta Ekaitzek liburu bitxiak zer botere zuen jakin nahi zuten.

—Zein da liburuaren boterea? —galdetu zion Ekaitzek.

—Bueno, hobe izango da aurkitzea eta zuen begiekin ikustea —esan zuen Estunfisek.

—Baina nola aurkituko dugu liburu hori? —galdetu zuen Maialenek.

—Lehenengo, eskultura arraroa bilatu behar duzue —esan zuen munstroak.

—Maialen, ez duzu gogoratzen? Portxean eskultura bat dago! —esan zuen Ekaitzek.

Portxera heldu ziren, eta eskulturara joan ziren hirurak. Testua irakurri zuten.

—«Etxeko urrea ipini eta bidaia egingo duzu»—irakurri zuen Ekaitzek. Maialenek eta Ekaitzek ez zekiten «etxeko urrea» zer zen. Asko pentsatu eta gero, Estunfisek esandako gauza batez gogoratu zen Maialen.



—Badaukat! —esan zuen oso pozik Maialenek—. Estunfisek esan zuen antzina etxe honetan bizi zen familiak milioika eta milioika liburu zeuzkala; beraz, liburu bat izan behar da.

—Bai, baina liburu asko daude liburutegian eta egongelan. Ezingo dugu liburu hori aurkitu —esan zuen Ekaitzek.

—Ez dizuet ezer esan. Margot familiari asko gustatzen zitzaion familiakoekin denbora pasatzea —esan zuen Estunfisek.

—Orduan, familiaren liburu bat bilatu behar dugu —esan zuen Ekaitzek.

—Goazen liburutegira —esan zuen Maialenek.

Liburutegian familiaren liburuentzako espazio bat zegoen. Maialenek liburu bat aurkitu zuen *Familia=urreea* izenekoa. Pentsatu barik liburua hartu eta portxera eramane zuen. Portxean eskulturako kalizean ipini, eta...

Eskultura mugitu egin zen! Maialenek ez zuen sinesten liburua aurkitu zuela. Ekaitzi eta Estunfisi deitu zien eta hirurak pasadizoan sartu ziren.

—Zer usain arraroa! —esan zuen Ekaitzek.

—Bai... Aaaaaaaa! Armiarma bat. Zenbat dauden! —esan zuen Maialenek beldurtuta.

—Arrazoa duzu, antzina askoz dotoreago zegoen —esan zuen Estunfisek.

Bat-batean argiak piztu ziren, eta, alboan, krokodriloz beteriko zulo bat eta palanka bat zeuden. Estunfisek pista bat eman zien:

—Fidatu eta iritsiko zara; mesfidatu eta hil egingo zara —esan zuen Estunfisek.

—Baina zer egingo dugu, beste aldetik pasadizoak jarraitu egiten du —esan zuen Maialenek—, eta oso urrun dago.

—Badakit zer egin —esan zuen Ekaitzek—. Nitaz fidatzen zara?

Ekaitzek Maialeni eskutik heldu eta biek batera salto egin zuten. Baina ez ziren jausi. Lur ikusezina zegoen eta biak sano eta seguru zeuden.

—Nitaz fidatu zara, zergatik? —esan zuen Ekaitzek harrituta.

—Beti borrokan ari gara, baina oraindik nire neba nagusia zara eta asko maite zaitut —esan zuen Maialenek.

Biek pasadizoari jarraitu zioten beste gela batera heldu arte. Gela desberdina zen. Lurrean sinbolo batzuk zeuden, Egiptoko sinboloak. Estunfisek pista bat eman zien:

—Guri dena eman diguna zapal dezakezu, beste bat zapaldu eta ezingo zara hemendik berriro irten —esan zuen Estunfisek.

—Baina ez ditut sinboloak ulertzen —esan zuen Ekaitzek larrituta.

—Nik bai, eskolan Egiptoko jainkoak ikasten ari gara, eta egiptoarrei euren jainkoek dena eman zieten —esan zuen Maialenek—. Jainkoen sinboloak zapaldu ahal ditugu!

Maialen eta Ekaitz gelatik seguru atera ziren. Liburu bitxia gordetzen zen lekura heldu ziren eta dena argiz beteta zegoen. Maialenek liburua hartu zuen. Liburua ireki eta zuri-zuri zegoen. Bat-batean, Maialen liburua irekitzen ari zen bitartean, hitzak agertzen hasi ziren, baina Maialenek bakarrik ikusi ahal zituen. Beldurtu egin zen eta liburua lurrera bota zuen, eta berriz liburua zuri geratu zen.

Orduan, Ekaitzek berriro liburua hartu zuen eta mirari bat bezala beste istorio bat agertu zen. Biak konturatu ziren zein zen liburuaren boterea: baten batek liburua hartzen duenean, liburuak istorio berri bat idazten du, liburu etengabea da, bitxia da.

Maialenek esan zuen:

—Zer egingo dugu liburu honekin?

—Badakit! Ideia zoragarria daukat! —esan zuen Ekaitzek—. Herriko liburutegira eraman dezakegu eta horrela betiko liburuak egongo dira herrian —esan zuen Ekaitzek oso pozik.

—Oso ondo, Ekaitz, ados nago zurekin. —esan zuen Maialenek barrezka.

Herriko alkateak zorionak eman zizkien, hain opari bereziagatik.

NIK PENTSATZEN DUT...

Nile Garitano Lafont
Deustuko Ikastola IPI

MIKEL

Ez dut inoiz nire ama ulertu, eta uste dut berak ni ere ez nauela ulertzen. Bueno, berak ez dio hori... Beti esaten dit: «ulertzen zaitut, Mikel, nik ere izan nituen 12 urte!» Noski! Aitak ere izan zituen 12 urte eta ez nau edozein gauzagaratik zigortzen! Gainera, ulertuko banindu, zergatik hainbeste tirabira? Zergatik ez dit uzten berak 12 urte zituenean egin nahi zuena egiten edo esaten? Galdera horiek barrutik erre egiten naute!

ZURINE

Jainko maitea! Nire semeak ez du erremediorik! Sesioa izaten dugun bakoi-tzean (hau da, askotan) esaten dit: «zuk ez duzu ulertzen!»

Ez, zera! Bueno..., agian, ez guztiz... Baina horrek ez du axola, nik agintzen dut eta nik agintzen dut! Gainera, esaten diodanean ulertzen dudala, nik ere izan nituela 12 urte, harroputz jartzen da eta esaten dit: «aitak ere izan zituen 12 urte eta ez nau edozein gauzagaratik zigortzen!»

Baina txarrena da aita, lana dela eta, hilean birritan etortzen dela etxera! Nola zigortuko du, bada? Ez dizkiot beraren aldrebeskeria guztiak kontatzen.

2020ko abuztuaren 14a

MIKEL

Gorroto ditut goizak: hasteko, amak «teknika» berezia erabiltzen du ni esnatzeko, hau da, pertsiana goraino igotzea eta argia piztea! Gero, gosaltzen ari naizen bitartean eta berak telefonoa eta etxeko giltzak bilatzen dituen bitartean, esaten dit: «Berriro berandu nabil! Badakizu zergatik, Mikel? Bada, zure gauzak batzen ibili naizelako: galtzerdi zikinak, atzoko afariko basoa eta platera... »

Hori esaten didanean pentsatzen dut: eta nork esan dizu zuri nire gauzak batzeko? Ez batu eta kito! Nik bakarrik egin dezaket, ez ditut sei urte! Azkenik, amak komunean aurkitzen ditu giltzak eta poltsikoan telefonoa, agur esaten dit eta badoa.

Bost minutu geroago berriro igotzen da etxera musukoa hartzera, eta orduan bai, badoa.



ZURIÑE

Benetan! Gaur ere berandu heldu naiz lanera Mikelen gauzak batzen ibiltzeagatik! Baina, egia esan, nahiago dut horrela, ze bestela Mikelek gordetzen ditu, eta Mikelek gordetzen dituenean, txarto gordetzen ditu gauzak! Eta, gainera, ez du gogoratzen non gordetzen dituen, beraz, nork bilatu behar ditu eta berriro ere gorde dagokien lekuan? Bada, Zuriñek! Bere amak!

Hala ere, txarrenak arratsaldeak izaten dira: lanetik atera, Mikelen bila joan ikastolara, askaria prestatu, jan dezan itxaron, autobusa ozta-ozta hartu (noizbait autobusaren atzetik korrika joan gara keinuak egiten), Mikel ingeleseko eskolan utzi, kafea hartu... Bueno, azken hori ez da oso gogorra izaten... baina, orokorrean, oso gogorra da! Zergatik? Bada, nik esaten dudalako!

2020ko abuztuaren 15a

MIKEL

Ai, ama! Ezin dut sinetsi! Ezin da izan! Baina... Nola!? Zergatik!? Nire ama haurdun dagoela!? Aita etxera datorrela denboraldi baterako!?

Ea, lasaitu, Mikel, eta pentsatu zer gertatu den: lehenengo, amarekin sesioa izan duzu, horraino ondo. Gero, komunera joan zara eta komunean makilatxo zuri

bat aurkitu duzu, makilatxoak beste makilatxo txikiago bat zuen puntan, urdin kolorekoa. Makilatxoa hartu duzu, amari erakutsi diozu zer den galdetzeko, eta amak esan du: «Ai, ama! Ai, ama! Ezin da izan!»

Amak horrela eman ditu hamabost minutu, eta gero aitari deitu dio. Bukatu duenean, berarekin esertzeko eskatu dizu, eta orduan... haurdun dagoela esan dizu! Eta, gainera, munduko gauzarik normalena balitz bezala! A zelako aurpegia! Benetan! Ni bai zoritxarrekoa! Bueno... ez guztiz... ze amak esan dit... aita gurekin bizitzera etorriko dela haurdunaldia dela eta!

ZURIÑE

Ze arraroa den Mikel, benetan! Haurdun nagoela kontatu diodanean ez dut oso pozik ikusi, baina afalorduan, berriz, esan dit oso berri ona dela, harekin hitz egin eta jolastu ahal izango delako. Bueno..., agian,... aitari buruz hitz egiten ari zen... Noski! A zelako aurpegia duen!

2021eko abuztuaren 20a

MIKEL

Badira bi hilabete Ane jaio zenetik eta aitak hemen jarraitzen du bizitzen. Gaur esan digu etxetik gertu aurkitu duela lan on bat eta gurekin geratuko dela; beraz, hobeto! Aita badago, amak Aneri titia ematen dion bitartean, gu *Play Station*arekin jolastu gaitezke; eta ama ginekologoarengana doanean, Ane lotan utzi eta orduan ere *Play Station*arekin jolastu gaitezke!

ANE

Nire nebak pentsatzen du bi hilabete izateagatik tuntuna naizela, baina ez da horrela. Nik badakit «lotan» nagoenean (ez naiz lokartzen, nagia ematen dit lo egiteak) *Play Station*arekin jolasten ari direla, baita titia hartzen dudanean ere. Eta hori ez zait gustatzen! Beraz, gaur, amak titia ematera eramaten nauenean, bide erdian, negarrez hasiko naiz, ama txupetearen bila joango da, eta... ZAST! Aita eta Mikel harrapatuko ditu *Play Station*arekin jolasten! Orduan, bai, akabo *Play Station*a eta tontakeria horiek guztiak!



2024ko azaroaren 4a

ZURIÑE

Nekatuta nago, benetan! Mikelek egunero esaten dit: «Ama, Anek nire (ez dakit zer) hartu du!»

Eta gero Anek: «Ez da egia! Berak kendu dit niri!»

Eta Mikelek erantzuten dio: «Isildu zaitez, gezurti hori! Ez dakizu zer esaten ari zaren!» Orduan, Ane negarrez hasten da, nik errieta egiten diot Mikeli, Anek barre egiten du, Mikel nirekin haserretzen da, eta nire senarrak etorri eta esaten du: «Hori, hori!»

Gizon honek ni tuntuna naizela pentsatzen du ala zer? Gainera, hasieran kezkatuta nengoen Anek oso berandu ikasi zuelako hitz egiten, baina orain nahiago nuke inoiz ikasi ez balu!

2045eko irailaren 30a

MIKEL

Benetan! Nire alaba ganoragabeko hutsa da! Beti nabil bere gauzak batzen, eta, gainera, egunero borrokatzen da bere neba txikiarekin! Eta...

HERRIA HIRIRA

Beñat Atutxa Martín
Kirikiño Ikastola HLBHIP

Bazen behin Euskal Herriko hiri batean Peio izeneko mutil jator bat. Peio aste barruan hirian bizi zen eta asteburu guztietan aitona-amonen herrira joaten zen, bertan etxe bat zutelako eta naturan bizitzea maite zuelako.

Eskola egunetan, ohera sartzen zen bakoitzean, Peio-ren buruan beti errepikatzen zen pentsamendu bera:

—Egun bat gutxiago herrira joateko.

Ikastolako lagunek, askotan, etxeko lanak egin ondoren, nahiago izaten zuten etxean mugikorrarekin jolasten geratu; Peiori, ordea, ideia hori ez zitzaion batere gustatzen, nahiago zuen kale-ira irten eta edozertan jolastu.

—Gaur ere ez dira irten!



Ostirala heltzen zenean, Peio pozik esnatzen zen; ikastolarako bidea ere beste egunetan baino pozago egiten zuen, bazekielako arratsaldean herrira joango zela eta asteburua mendietan eta landetan jolasten pasatuko zuela. Baina Peiok, jolas-teaz aparte, gauza asko ikasten zituen herrian: txorien hegaldiak, ardien mugimenduak euria asterakoan edo eguzkiak gogor jotzen zuenean, zuhaitz motak eta beraien fruituak, eta abar.

Bizipoz hori guztia bat-batean bukatu egiten zen igande arratsaldeko zazpitan, aitak autoaren klaxona jo eta haren ahotsa berari deika entzuten zuenean. Herritik hirirako bidaia asteburuan bizi izandako uneak gogoratzen igarotzen zuen.

Hurrengo asteetan, ikastolako etxeko lanak egin ondoren, Peio kalera irteten hasi zen, askotan bakarrik. Egun batean, zaurituta zegoen txori bat aurkitu zuen auzoko lore batzuen artean eta etxera eramatea pentsatu zuen. Argi zuen txoria osatu artean berarekin izango zuela eta behin osatuta berriz utziko zuela libre. Txori hark alaitu egin zuen Peioren bizitza hirian aste horretan.

Txoria libre uzteko egunaren aurreko gauean, ohean etzanda zegoela, txori hori etxean izatea herriaren zati bat hirira ekartzeari bezala izan zela hausnartu zuen Peiok; eta pentsatu zuen polita izango litzatekeela zauritutako txori eta animalia txikiei laguntzea. Horrela, Peio ezagun egin zen auzoan; auzokide guztiei esan zien prest zegoela zauritutako txori edo animaliak sendatzeko.

Modu horretan, txori eta animalia txiki asko sendatzeko aukera izan zuen, eta hirian aste barruko egunak alaiagoak bihurtu ziren.



ZUZENDARI IRUZURTIA

Raymond Daniel Asiedu
Intxixu Ikastola HLHI

Irrinovich eta Txistekov bulegoan zeuden kasuren bat konpontzeko dei baten zain. Biak ziren detektibeak. Irrinovich mukiak kentzen zebilen hatz erakuslearekin eta Txistekov komunean zegoen zaldar bat garbitzen.

Halako batean, telefonoak jo zuen eta Txistekovek hartu zuen:

— Egun on.

— Bai, zer nahi duzu? Presa handia daukat, zaldar bat garbitzen ari naiz eta. Esan bizkor.

—Tira, bada, katua desagertu zait. Bilatuko duzue?

—Aizu, Irrinovich, txakurrak bilatzen al ditugu?

—Noski, Moskuko detektiberik onenak gara.

—Aizu, zure txakurra bilatuko dugu —esan zion Txistekovek bezeroari.

—Aizu, baina... nirea ka...

Txistekovek telefonoa eskegi zuen bezeroari amaitzen utzi gabe, eta kalera joan zen. Txakur bat solte ikusi zuen kalean eta harrapatu egin zuen. Bezeroari itzuli zionean, berak katua galdu zuela esan zion, ez txakurra. Pikutara bidali zuen.

Txistekov bulegora joan zenean, Irrinovich beste telefono dei bat erantzuten zebilen. Moskuko Museoko zuzendaria zen, eta esan zion fosil bilduma baten lapurreta izan zela eta detektibeak kontratatatu nahi zituela hura berreskuratzeko.

Museora heldu zirenean, zuzendariari galdetu zioten:

—Aizu, zer gertatu da hemen?

—Fosil bilduma bat lapurtu digute —erantzun zien—. Tori argazkiak.

Bitartean, Txistekov museoaren begiratzen hasi zen eta garbitzaile bati erakutsi zizkion fosilen argazkiak. Lupa bat eman zion eta aztertu ikusi zituen. Bat-batean, zuzendariak Irrinovichen mukizapia aurkitu zuen eta itzultza zehazteko...

—Hara, mukizapia bat aurkitu duzu! —esan zuen Txistekovek.

—Ene, goazen laborategira —erantzun Irrinovich.

—Bada, bai, azkar —amaitu zuen Txistekovek.

Laborategira joan ziren. Bertan frogak aztertu eta esan zieten Txistekovenak zela: **AZTERA FALTSUAK ZIREN!!**

—Ez bota mukizapiak edonora! Ze laguntzaile ergela zaren! —esan zion modu txarrean Irrinovich Txistekovi.

Jarraian, bulegoan joan ziren atseden hartzera. Bat-batean, langile batek deitu zien telefonoz. Deia hartzerakoan, Txistekovek Irrinovich zapaldu zuen, puzker bat bota zion aurpegira eta borrokan hasi ziren:

—Kaixo? Badago inor beste aldean? —galdetu zuen museoaren langile batek.

—Bai... hemen Irrinovich. Utzi bakean, Txistekov! Zer astuna zaren!

—Utzi puzkerak alde batera, tentela —Txistekovek.

—Mesedez, kasu hau larria da eta zuzendariak portaera arraroa dauka —esan zion langileak.

—Bai, oraintxe joango gara —esan zuten bi detektibeek batera.

Kalean, zuzendaria ikusi zuten eta atzetik jarraitu zioten, baina bat-batean galdu egin zuten eta detektibeek bazkaltzera joateko aprobetxatu zuten. Halako batean, zuzendaria agertu zen jangelan, baina orain maletatu batekin.

Txistekovek ikusi egin zuen eta eskutik heldu zion:

—Utzi paketea, laguntzaile hori! —ez dizut alde egiten utziko. Jarraian, Irrinovich poliziari deitu zion:

—Kaixo, poliziaren egoitza. Zer nahi duzu?

—Lapur bat harrapatu dugu, etorri azkar.

Baina Txistekovek jaten jarraitu zuen. Horretarako, zuzendaria askatu egin zuen eta horrek alde egin zuen.

—Baina zertan zabilta, Txistetontoa? —haserretu zen Irrinovich.

—Zer nahi duzu, bada? Gose nintzen —azaldu zion Irrinovich.

Orduan, detektibeak zuzendariaren atzetik joan ziren korrika azkar-azkar.

GABONETAKO ZUHAITZAREN DESAGERPENA

June Riloba Hernández
La Salle Bilbao HLBHIP

2020ko abenduaren 5a zen. Egun hartan eguraldi petrala egiten zuenez, amarengana joan nintzen, mesedez, etxean geratzeko eskatzera. Hasiera batean esan zidan ez genuela etxean gelditzeko asmorik eta buelta bat ematera joango ginela. Baina... banuen zerbait pentsatuta:

1. Klean ordu bat baino gehiago egonez gero, hipotermia izan genezakeela esatea, hotz handia egiten zuelako.
2. Bat-batean gogoratzea etxeko lanak egin behar nituela eta biharko lan garrantzitsu bat prestatu. Horrez gain, nire gela jaso behar nuela esatea (nahiz eta hasieran ez nuen esan nahi izan, azkenean esan egin nuen eta pixka bat gehiago konbentzitzea lortu nuen, baina ez asko).
3. Oraindik Gabonetako zuhaitza eta jaiotza ez genituela jarri esatea. Handik minutu batzuetara konbentzitu nuen, baina esan zidan baldintza batekin onartuko zuela: zuhaitza eta jaiotza trastelekutik nik igotzea. Ondo pentsatu ondoren, azkenean, onartu egin nuen.

Jantzi eta joan egin nintzen. Kutxa pila ziren; ireki egin nituen, eta barruan zuhaitza eta jaiotza apaintzeko apaingarriak zeuden. Bi kaxa hartu nituen esku bakoitzean, lau guztira. Etxera igo eta kutxa gehiagoren bila jaitsi nintzen. Trastelekuaren bigarren solairura igo nintzen, zuhaitzaren eta jaiotzaren bila. Handik gu-

txira, jaiotza aurkitu nuen, eta asko pisatzen zuenez, bera bakarrik igo nuen. Berriro trastelekura jaitsi eta zuhaitza bilatzen hasi nintzen. Anaia txikiarekin nengoen, bera baitzen laguntzeko prest zegoen bakarra. Ordubetez aritu ginen bila, eta ez zen agertu. Trastelekutik joatear nengoela, zulo handi bat aurkitu nuen; zuhaitza sobera sartzen zen bertan.

Denbora batez zer egin pentsatzen egon nintzen, eta, azkenean, zuloan sartzea erabaki nuen, zuhaitza berreskuratzeko. Mundu paralelo bat zen (*Stranger Things* telesailean bezala, baina oraingoan benetakoa!). Non sartu nintzen konturatu nintzenean, nire mundura itzultzea erabaki nuen, baina zuloa desagertu egin zen. Pentsatzen eta pentsatzen aritu nintzen, baina ez zitzaidan ezer bururatzen. Ez nekien zer egin, eta zuhaitza bilatzea erabaki nuen. Kilometro batera aurkitu nuen.

—Nola iritsi zara honaino? —galdetu nion neure buruari.

Bat-batean oso zarata arraroa entzun nuen, sufritzen ari zen zerbait balitz bezala; animalia bat, hain zuzen ere. Hasieran, garrasi egin nahi izan nuen, baten batek entzun eta laguntzeko; baina *Stranger Things* telesailean pentsatu eta garra-sirik ez egitea erabaki nuen. Lo geratzeko puntu-puntuan nengoela, oso nekatuta, ideia bat bururatu zitzaidan: eta berriro nire mundura eramango nauen beste zulo bat egongo balitz, *Stranger Things* telesailean zuhaitz batean agertzen dena bezalakoa? Inguruko zuhaitz guztietan begiratu nuen, baina ezer ere ez. Zuhaitz bat falta zitzaidan begiratzeko, baina ez nuen esperantzarik; hala ere, begiratu egin nuen, badaezpada. Ezetz jakin zer aurkitu nuen? Zulotxo bat! Arin batean Gabonetako zuhaitza hartu nuen (pisu handia zeukan) eta zuloan sartu nintzen.

Bat-batean, nire trastelekuan agertu nintzen berriro, baina nire anaiak berdin jarraitzen zuen, eta toki berean. Ea teleportatuta-edo iritsi nintzen galdetu zidan. Gertatu zitzaidana kontatu nion eta flipatuta geratu zen. Etxean ezer ez esatea erabaki genuen. Zuhaitza etxera igo eta Gabonetako zuhaitza muntatzen hasi ginen. Jaiotza bakarrik falta zen, baina berandu zen, eta abentura nahiko harrigarria izan nuenez, atsedean hartzea erabaki nuen. Hurrengo batean begiratuko dut ea zuloak bertan jarraitzen duen.



EZ UTZI INOIZ AMESTEARI!

Aiala Rodríguez Ritchie
Deustuko Ikastola IPI

Bazen behin Suedian Halmstand izeneko herri bat; 89.727 biztanle zituen. Bertan, bost umek osatzen zuten talde bat zegoen. Bost lagun horien artean ezberdintasun asko zeuden: kultura ezberdinetakoak ziren, amets ezberdinak zituzten...

Batek Agata zuen izena, 10 urte zituen, musulmana zen eta bere ametsa medikua izatea zen, ama medikua zelako. Agata pertsona lasaia zen eta beti pentsatzen zuen modu baikorrean.



Beste bat Adil zen, 11 urte zituen, budista zen erlijioz eta epaile izan nahi zuen ofizioz, munduan bakea egon zedin. Adil mutiko alaia zen eta jendeari laguntzen zion une oro.



Hurrengoak Moises zuen izena, 12 urte zituen eta judaismoaren kulturaren barneratua zegoen. Bere ametsa ingeniariaritzan ikastea zen, munduko leku txiroetan zubiak eraiki ahal izateko. Gainera, erraztasun handia zuen matematikarekin, eta zientzian batez ere oso ona zen.



Shaila talde horretako beste ume bat zen, 11 urte zituen eta hindu erlijioa zen, bere aita hindua zelako. Irakaslea izan nahi zuen, munduan gehien behar zuten umeek irakasle bat izan zezaten. Alaia zen eta ideia oso originalak zituen beti.

Azkenak Pablo zuen izena, eta 12 urte zituen. Ama Bilbokoa zen eta aita katolikoa; Pablo ere erlijio berberakoa zen. Pablok, nagusitan, suhiltzailea izan nahi zuen.



Talde horretako umeen familiek ez zuten diru askorik, horietako askoren gurasoek ez zuten lanik egiten. Haiek Suediako ikastola oso txiki batera zihoazen. Ikastola horretan irakasleek nahi zutena ikasleek ikastea, ondo pasatzea eta beraiek nahi zituzten ametsak errealitate bihurtzea zen; hori zen irakasleen lehentasuna.



Hirugarren zikloko lehen egunean, Elizabeth izeneko andereñoak galdetu zien ea zein zen beraien ametsa, eta une horretan bakoitzak berea esan zuen. Elizabeth oso harrituta geratu zen beraien ametsekin, normalean, adin horretako umeeek beste mota bateko ametsak izaten baitzituzten; adibidez, superheroia izatea edota hegan egitea.



Eskolak amaitu eta gero, guztiak euren herriko plazan biltzen ziren, etxeko lanak elkarrekin egiteko. Ametsak lortzeko zituzten zailtasunak kontatzen zizkioten elkarri: Agatak, adibidez, zailtasun handia izan zuen bere ametsa lortzeko, eta lagunei kontatzen zizkien bere kezak. Aitak ez zuen lanik egiten eta asko laguntzen zion bere zailtasunak gainditzeko; ama medikua zen eta ez zuen denbora askorik izaten. Baina aitak Suediatik joan egin behar zuen lana lortzeko. Orduan, aita joan zenean, lagunak bihurtu ziren bere entzule, talde hura izan zen bere kezak adierazteko lekua ordutik aurrera. Hurrengo batean, beste batek izan zituen zailtasunak, Adilek, hain zuzen ere. Hainbat hilabete pasatu ziren eta ez zekien nola esan gurasoei ez zuela irakasle on bat izan nahi eta epailea izan nahi zuela.




Bi urte pasa ziren elkar ezagutu zutenetik eta elkarri euren zailtasunak kontatzen hasi zirenetik. Batzuk nagusitzen hasiak ziren. Pablok eta Moisesek 14 urte zituzten jada, DBHko hirugarren mailan zeuden eta beraien ametsekin jarraitzeko aukera itzela agertu zitzaien: beste ikastola batera joatea. Baina ikastola etxetik urrun zegoen: Pablok Stockholm-era joan behar zuen eta Moisesek Göteborg-era. Elkarrengandik oso urrun egongo ziren, 3 ordu baino gehiagora zeuden hiriak. Mutilek ez zekiten zer egin, ez zuten diru nahikorik eta ez zituzten lagunak herrian utzi nahi. Orduan, beraien zailtasunak lagunei kontatu zizkieten, eta Shailari, betiko moduan, ideia bat bururatu zitzaion:



—Beraiek dirua izateko, Moisesen etxean gailetak egin eta saldu egin ditzakegu. Horrez gain, denok batera egoteko astean birritan bideo-dei bat egin dezakegu elkarrekin; zer iruditzen zaizue?

Guztiek ideia bikaina zela esan zuten. Orduan, arratsalde horretan gurasoei galdetu zieten, eta hurrengo arratsaldea sukaldean gailetak egiten igaro zuten. Hila-bete geroago diru nahikoa zuten.



Pablo eta Moises ikastola berrira joan ziren, eta, adostuta zuten moduan, astean birritan bideo-deia egiten zuten. Gainerakoak betiko ikastolan geratu ziren, Baxilergora iritsi arte; momentu horretan nora joan nahi zuten pentsatu behar izan zuten. Bazekiten bakoitza leku batera joango zela bere ametsak lortzeko. Urte batzuk geroago, guztiak unibertsitatean zeuden, nahi zutena ikasten.




Azkenean, bakoitzak bere ametsak lortu zituen. Nire gurasoek esaten didaten moduan, «ez utzi inoiz amesteari, esfortzua eta imajinazioa jarritz gero, gauza asko lortu ditzakezu eta!».



Eta hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta irten dadila Deustuko plazan.

Wij
Daarvoor
Kalela



C
KATEGORIA
(DBHko 1. eta 2. mailak)



DENA EZ DA ESAN BEHAR

Garazi Aretxaga Bustinza
Deustuko Ikastola IPI

Orain dela bi urteko udan zerbait harrigarria gertatu zitzaidan. Uda hasieran dena ondo joan zen; amaieran gertatu zitzaidan nire bizitzako gauzarik harrigarriena.

Nagusiak afari garrantzitsu batera gonbidatu zuen ama. Guztiok joan ginen. Etxea izugarria zen, sekulako lorategiarekin. Emakume hark aberatsa izan behar zuen. Han ume gehiago zeuden, ni baino txikiagoak; hala ere, beraiekin egon nintzen jolasten gau osoan. Gabonak kontuan hartu gabe hura izan zen nire bizitzako afaririk goxoen eta dibertigarriena. Afaltzeko, txikiak nagusien mahaitik urrun jarri gintuzten, euren gauzez hitz egiteko pentsatzen dut. Afaldu ondoren, nagusiak mahaian geratu ziren hitz egiten eta barrezka. Txikiak jolasten hasi ginen. Lehenengo, harrapaketan jolastu ginen. Gehienak bigarren pisura igo ginen ezkutatzera, eta ni komunean ezkutatu nintzen.

Ezkutatuta nengoela, negar batzuk entzun nituen. Negarrari jarraituta, logela handi batera heldu nintzen. Bertan mutiko txiki bat zegoen negarrez. Ilhoria zen eta begi urdin handiak zituen. Lepoan gorbata gorri txiki bat zeraman, kamiseta urdin baten gainean. Praka motzak eta beltz kolorekoak zeramatzan jantzita.

Haren alboan eseri nintzen, eta galdetu nion ea zergatik egiten zuen negar.

—Inork ez duelako nirekin jolastu nahi —erantzun zidan.

—Zein da zure izena? —itaundu nion.

—Pedro —erantzun zidan.

—Pedro, zergatik ez zara behera jaisten? —galdetu nion.

—Nire gurasoek ez didatelako uzten —erantzun zidan.

—Zergatik ez? —berriz galdezka.

—Gaixo nagoelako —ihardetsi zidan triste.

Ordubetez geratu nintzen berarekin jolasean, loak hartu arte.

Gero, jaitsi egin nintzen. Guztiak nire bila aritu ziren, eta bigarren pisuan zegoen mutil txiki batekin egon nintzela esan nien, Pedrorekin. Ez zegoela ume gehiago esan zidaten. Orduan, argazki bati begira geratu nintzen, eta hura zela esan nuen. Nagusi guztiak txarto begiratzen hasi zitzaizkidan eta beraien artean gauzak xuxurlatzen, baina ezin izan nituen entzun. Nik ez nuen ezertxo ere ulertzen.

Handik atera ginenean, nire gurasoek esan zidaten ume hori nire amaren nagusiaren semea zela. Nik ez nuen ulertzen zein zen arazoa, gurasoek esan zidaten arte ume hori txikia zela hil zela. Baina hori ezinezkoa zen, ni berarekin egon nintzen hizketan.

Horren ostean, lo nengoenean, amets gaiztoak baino ez nituen izaten. Ezin nion umea ikusteari utzi. Hilek aurrera egin ahala, amets gaiztoak izatetik lo ez egitera pasatu nintzen. Baina horrek ez zuen nire iritzia aldatuko, nik banekien zer ikusi nuen. Arazoa besteena zen; ziur nago ez zela haluzinazio bat izan. Hala ere, gauetan lo egin ezinik jarraitzen nuenez, psikologo batengana eraman ninduten gurasoek.

Eskolak etxean ematen hasi nintzen. Noizbehinka etxetik ateratzen nintzen paseatzera, baina, besterik ez. Batzuetan nire lagunak etortzen ziren etxera, ni nola nengoen jakiteko. Egia esan, ez nengoen oso ondo. Gauean ezin izaten ninduen loak hartu. Jateko gogoak kendu zitzaidan; jada, 4 kilo galdu nituen, eta ez nuen ezer egiteko indarrik. Gurasoek onena ni medikuarenera eramatea izango zela erabaki zuten. Medikuek jan egin behar nuela esan zien gurasoei, orduan egin ahalko zizkidatela proba gehiago.

Urtea pasatu zen eta oraindik ez ziren amets gaiztoak joan. Jaten hasi nintzen behintzat eta indar gehiago nuen. Behin, lotan nengoela, zarata bat entzun nuen. Egongelatik zetorren. Egongelara sartu nintzenean... Pedro zen! Ez zidala minik egin nahi esan zidan. Hitz egiten egon ginen, lagun egin arte. Hortik aurrera sendatzen hasi nintzen eta ulertu nuen mamu guztiak ez zirela gaiztoak.

Ikastolara itzuli nintzen lagunekin, eta dena lehengora itzuli zen. Gauza bat izan ezik, gauero joaten nintzen egongelara Pedrorekin hitz egitera. Inoiz ez nion inori Pedrori buruz hitz egin. Zorua nintzela pentsatuko zuten.

MINIGONA

Laida Etxebarria Rodríguez
Artxandape Ikastola HLBHIP

Kaixo, hasteko, neure burua aurkeztuko dut. Lydia Etxebeste naiz, 17 urte ditut eta Bilbon (Bizkaia) bizi naiz. Neure burua pertsona alai, zoro, aktibo eta alfertzat daukat. Argala naiz, altuera normalekoa (1'65); begi berdeak ditut eta gaztaina-koloreko ilea. Ikastolan nahiko ezaguna naiz, lagun asko ditut, eta festa askotara gonbidatzen naute.

Nire lagun onena Leire Rodriguez da. Ez da nire klasekoa, ezta nire ikastola-koa ere. Txikitatik ezagutzen dugu elkar. Gure gurasoak oso lagun minak dira, eta, gu jaio ginenetik, bizilagunak ere bai. Leire eta biok, elkar ezagutu genuenetik, lagunik onenak gara.

Behin hori jakinda, nire istorioa kontatzen hasiko naiz. Bueno, bada, pasa den urtean bahituta egon nintzen bi astez. Dena 2019ko azaroaren 19an hasi zen; zapatu horretarako festa bat egitea pentsatuta genuen klasekook. Hilabete horretako azterketa guztiak bukatuak genituen; beraz, ospatzeko, festa hori egiteko lekua, janaria, ordutegia eta abar pentsatzen egon ginen aste hartan. Azkenean, festa hartara ikasgelako guztiak joatea erabaki genuen, hogeita lau ikasleak; eta horrez gain, nahi zuenak beste pertsona bat eraman ahal izatea erabaki genuen.

Festa ospatuko zen lekua, ordua, janari mota eta nork zer eraman erabaki genituen. Festa Aitorren etxean ospatuko zen, arratsaldeko zortzietan hasiko zen

eta lauко taldeetan banatu ginen janaria eramateko. Talde bakoitzak janari mota bat eramateko ardura zuen. Batzuek janari gozoa, beste batzuek edariak, beste taldetxo batek alergiadun, begano eta zeliakoentzako janaria... Janari gazia eramango zuen taldean egotea egokitu zitzaidan niri: hau da, patatak, krispetak, sandwichak, saltxitxa-ogitartekoak (hot dog) eta abar eramatea. Festarako prestaketak amaituta zeuden eta erosketa guztiak prest; orain, eguna heltzea bakarrik falta zen.

Azkenean, festaren eguna heldu zen, azaroak 19. Nik Leire eramango nuen pertsona estra bezala, argi zegoen. Beraz, arratsaldeko bostetan nire etxera jaitsi zen eta biak batera prestatzen hasi ginen. Lehenengo, zer arropa jantzi erabaki genuen: nik minigona beltza eta jertse zuri zabal bat eramango nituen eta Leirek bakero batzuk, top zuri eta jaka beltz batekin konbinatuta. Ondoren, makillatzen hasi ginen. Natural joatea erabaki genuen, ez genuen pailazoak iruditu nahi; eta, beraz, makillaje-oinarria, errimel gardenak, begi-itzal marroia eta ezpainetako arroza argia bakarrik erabili genituen. Zazpiak inguruan bukatu genuen, eta etxetik irten ginen Aitorren etxera joateko. Haren etxea nahiko urrun zegoen: metro-geltokira joan, metroari itxaron eta Aitorren etxetik hurbilen dagoen geltokian jaitsi ginen. Handik Aitorren etxera abiatu ginen. Zortzietarako bertan ginen janariarekin, eta dena mahaian kokatzen hasi ginen.

Festa oso ondo prestatuta zegoen: musika, led argiak, nagusirik ez eta disko-jartzailearen mahaia (ez zen benetako disko-jartzailearen mahaia, mahai normal bat zen eta ordenagailuarekin jartzen zuen musika). Festa oso ondo egon zen, eta, azkenean, 39 pertsona egon ginen. Janaria oso gozo zegoen, baina benetako festa hamar eta erdietan hasi zen. Musika hobeak jartzen hasi ziren (eta horrekin esan nahi dut martxa gehiago zuela dantza egin ahal izateko); ordu eta erdiz ibili ginen dantzan, hamabiak arte. Orduan jolasekin hasi ginen, jolas mota askotan jolastu ginen: *Monopoly* mahai jokoarekin, ezkutaketa bezalako korrika-jokoetan, *Los impostores* misterio jokoarekin...

Dena dela, dibertigarriena etxean bertan muntatu genuen ihes-gela izan zen. Bi taldetan banatu ginen eta hainbat frogak egin genituen: batzuek frogak egin bitartean, besteek frogak horiek ondo edo txarto egiten zituzten esaten zieten eta ateak zabaltzen zizkieten. Denbora gutxiagoan frogak guztiak ondo egitea lortzen zuena irabazle. Jolas horretan nire taldeak irabazi zuen, 47 minutu eta 29 segundotan bukatu baikenuen; besteek, aldiz, 52 minutu eta 46 segundotan lortu zuten bukatzea.

Ordu biak inguruan, sortutako deskalabru guztia batzen hasi ginen, eta, tontakeria eta barre artean, hiruretarako bukatu genuen. Orduan, etxerantz abiatu ginen Leire eta biok. Metro geltokirantz gindoazela, mutil bat hurbildu zitzaigun, 30 urte ingurukoa. Ez nion oso ondo aurpegia ikusi, izerditzeko jertsearen txanoa eta eguzkitarako betaurrekoak baitzituen jarrita. Altua zen, eta sasoi onean zegoela ikusten zen. Mutila hitz egiten hasi zitzaigun.

—Zertan ari zarete zuek biok ordu hauetan kalean? Zuen gurasoek utzi ahal dizute? Nora zoazte? Nahi baduzue, etxeraino eramango zaituztet. Aizue, oso politak zarete biok, nola duzue izena?

Guk esan genion ez genuela berak inora eramatea nahi eta ez genuela bere laguntzarik behar. Ez genizkion gure izenak esan, eta festa batetik gentozenik ere ez.

—Ados, beraz, ez baduzue nire laguntzarik behar, agur —esan zigun mutilak.

Beste alderantz joan zen, guk ez genion ezer esan eta erdi korrika metro geltokira heldu ginen. Asko beldurtu ginen, eta zerbait egingo zigula pentsatu genuen. Metrotik jaitsi ondoren, lasaiago abiatu ginen etxera. 10 minutu falta ziren etxera heltzeko, eta bat-batean auto beltz bat gelditu zen gure parean eta lehen ikusitako mutila atera zen bertatik. Gu korrika atera ginen, baina bera azkarragoa zen, zeren eta, lehen esan dudan bezala, sasoi onean zegoela zirudien; eta bai, sasoi onean zegoen.

Poltsikotik telazko poltsa bat atera eta buruan jarri zidan. Nik ez nuen ezer ikusten, Leireren oihuak entzuten nituen. Autora sartu ninduela nabaritu nuen, eta jada ez nuen oihurik entzuten; beraz, oihuka eta negarrez hasi nintzen. Gizonak isiltzeko esan zidan, isilduz gero, ez zitzaidala ezer gertatuko. Ihes egiten saiatzen ez banintzen, egun batzuetan nire familia berriro ikusi ahalko nuela esan zidan; beraz, nik hori egin nuen.

Bahituta egon nintzen denboran gizonak berriak jartzen zizkidan nik kanpoko jendeak zer pentsatzen zuen jakiteko, eta, egia esan, ez zitzaizkidan batere bidezkoak iruditu esaten zituzten gauzak: «Normala da bahitzea, minigona batekin dabil eta; gainera, goizeko ordu txikietan. Nik ez dut ezer esango, baina ez zait normala iruditzen horren probokatzaile jantzita ateratzea eta gero, gainera, kexatzea...». 30 urteko gizon batek bahitu izana nire errua izan balitz bezala. Ez zitzaidan normala ez bidezkoa iruditu jendeak esan zuen guztia.

2019an geunden (orain 2020an), XXI. mendean, eta jendeak oraindik uste du neska batek arropa estua edo motza eramateagatik gizonak eskubidea dutela berarekin edozer gauza egiteko. Zergatik da gure errua? Gu nahi dugun bezala jantzikotik gara; eta ez genuke beldurrik izan behar kalera arropa «probokatzailea» jantzita ateratzeko eta gizon astapotro batek gu bahitzeko.

Bi aste pasatu ziren eta gizonak ni askatzea erabaki zuen. Ez nekien zergatik izan ninduen bi astez bahituta eta ezer gertatu izan ez balitz bezala askatu. Ez zidan ezer txarrik egin. Ez nuen ulertzen zergatik zuzendu zuen bere burua poliziarengana. Baina etxera heldu nintzenean, gurasoak oso pozik jarri ziren ni ikustean; eta ama pozaren pozez negarrez hasi zen. Aitak poliziari deitu zion, eta 5 minutuan etxean geneuzkan. Galdera batzuk egin zizkidaten: ea mutila nor zen, ea ondo nengoen, ea zerbait egin zidan... Nik galderei erantzun eta jendearentzako mezu bat bidali nahi nuela esan nien. Graba nintzaketen galdetu nien, eta beraiek baietz. Nik pentsatzen eta uste nuen guztia kamera aurrean esan nuen. Poliziak pixka bat harrituta geratu ziren mezu polita iruditu zitzaielako; eta, gau hartan, telebistan agertu zen nire hitzaldia. Hitzaldiaren ondoren, bahitu ninduen gizona ere telebistan atera zen, eta dena esperimendu bat izan zela esan zuen: *«Esperimentua neska bat bahitzea eta jendeak horren aurrean nola erreakzionatzen zuen ikustea zen. Hiri eta komunitate bezala hazi eta aurrera egin dugun egiaztatu nahi nuen, eta ikusi den bezala, emaitza ezezkoa izan da. Lydiaren familiari eta*

lagunei ere barkamena eskatu nahi diet, baina benetako bahiketa egin behar nuen, esperimentua ondo ateratzeko».

Ni harrituta nengoen, eta ez nekien nola erreakzionatu, ez nuen erantzun hori espero; nire bahiketa esperimentu bat izan zen! Ez nuen ezer ulertzen. Argi zegoen gizonak zigor bat jasoko zuela bahitzeagatik. Urtebetez kartzelaratu zuten, baina orain aske dago, eta berarekin batera kanpaina bat sortu dut, nesken eskubideak defendatzeko: MINIGONA du izena, eta jende asko dago gure alde. Leirek ere asko lagundu digu kanpaina sortzen, eta egunero laguntzen digu. Oso harro nago neure buruaz, eta uste dut nire gurasoek eta Leirek ere zerbait handia egin dutela. Bilboko biztanleen hiru laurdenek gure kanpaina babesten dute eta gure alde daude. Horrek oso zoriontsu egiten nau.



UNE HONETAN BEHAR ZAITUT

Amaya Salgado Huidobro
Artxandape Ikastola HLBHIP

Maria 15 urteko neska normal bat da. Donostian bizi da eta istorio tristea du. Oso indartsua da, edozein neska-mutilek jasan ezin dituen gauza asko bizi izan ditu.

Istorioa duela 9 hilabete hasi zen, 2018ko udan. Mariak lagun asko zituen eta nota onak ateratzen zituen. Amaia izeneko laguna zeukan, zintzoa eta maitagarria; baina bere lagun minaren alderik onena berarengan izan zezakeen konfiantza zen. Dena kontatzen zion, bere beldurrak eta arazoak. Elkar besarkatzen zutenean, seguru sentitzen ziren, ezer gertatuko ez balitz bezala. Bestearen presentziarekin babestuta sentitzen zen. Amaiaz aparte, beste lagun on batzuk ere bazituen, baina inork ez zuen Amaiaren magia, Amaiaren boterea, inork ez zuen Maria horrela sentiarazten.

Familiarekin zuen harremana ez zen txarra, gurasoekin une politak bizi izan zituen eta neba inor baino gehiago maite zuen. Jokin zen haren izena, 18 urte zituen eta, zoritxarrez, asko ikasi behar zuenez, ez zion Mariari arreta handirik jar-tzen. Mariak Jokinekin denbora asko ezin zuela igaro ulertu arren, neba bazkalorduan eta afalorduan bakarrik ikusteak nahikoa mintzen zuen.

Udako arratsalde guztietan bezala, Maria, Amaia eta lagun batzuk kafetegi batera joan ziren. Kafetegia abegitsua zen: toldo bat zuen, marra gorri eta zuriekin, eta mahai txiki batzuk terrazan. Beti joaten zirenez kafetegi horretara, langileak ezagutzen zituz-

ten, eta lagunak ere baziren. Zer edan aukeratu ondoren, mahai zirkular batean eseri ziren. Solasaldi luze baten ondoren, Mariak bere telefonoa atera zuen lagunekin argazki bat ateratzeko. Botoia sakatu aurretik, bere neba Jokinek mezu bat bidali zion: «Arrebatxo, zure laguntza behar dut; etorri etxera, mesedez». Mariak nahasita begiratu zion Amaiari, eta lagunak agurtu ondoren, etxerako norabidean alde egin zuen. Bitxia iruditu zitzaion; nebak ez zion sekula laguntza eskatzen.

Etxera iritsitakoan, garrasi batzuk entzun zituen; eztabaida bat zen. Ohituta zegoen, azkenaldian, gurasoek asko eztabaidatzen zuten, baina oraingoan oso handia zela iruditu zitzaion. Argudioari jaramonik egin gabe, nebaren gelan sartu zen, eta maleta batekin eta motxila pare batekin ikusi zuen neba.

—Zertan zabilta? —galdetu zion Mariak, nahastuta.

—Banoa hemendik, Maria, ezin dut gehiago —erantzun zion, masailetik malko bat erortzen zitzaiola nabarituz.

—Zergatik? Ez, mesedez, ez nazazu hemen utzi, behar zaitut —esan zion Mariak, ia-ia negarrez. Galdetu arren, bazekien Jokinek zergatik alde egin nahi zuen. Bazekien zer-nolako presioa jasan behar izaten zuen Jokinek gurasoen aldetik: semerik onena izan behar zuen, eta horrek min handia egiten zion. Ez zuen lagun askorik, eta ezin zion inori bere egoerari buruz hitz egin.

Jokinek Mariaren galderei erantzun beharrean, segundo batzuetako begirada tris-tea eskaini zion eta zerbait xuxurlatu zuen. Mariak ez zuen ondo ulertu, baina barkamena eskatu ziola uste zuen. Motxila bat hartu, eta Jokini eskailerak jaisten lagundu zion. Ateraino iritsi eta Jokinek ez zuen agur esan, bizkarra eman zion Mariari, ez baitzuen arreba negarrez ikusi nahi.

Mariaren sentimenduak oso nahastuta zeuden, errudun sentitzen zen, Jokinek laguntza behar izan zuenean ez laguntzeagatik. Haserretuta zegoen nebarekin, han utzi zuelako, babesik gabe. Triste zegoen ez zekielako noiz itzuliko zen edo berriro ikusiko zuen. Nahiago izan zuen ez galdetu. Baina, batez ere, gurasoekin zegoen haserre, Jokin suntsitu zutelako, ez ziotelako lagundu, ondo zegoen ere ez ziotelako galdetu.

Neba alde egiten ikusi ondoren, Mariak, lehenengo-lehenengo, Amaiari deitu zion.

—Kaixo, nor da? —galdetu zuen Amaiak telefonoz.

—Aupa, Amaia, Maria naiz —erantzun zion Mariak. Ez zebilen negarrez, baina ahotsa apurtuta zuen; Amaiak bazekien negar egin zuela.

—O! Maria, zer gertatu zaizu? Kezkatuta nago, kontatu dena eta lasai egon, nigan konfiantza eduki dezakezu —esan zion Amaiak.

—Badakit, Amaia, eskerrik asko... Oso gauza bitxia gertatu zait. Ustekabean, nire neba etxetik joan da! Nire neba! Babesten ninduen! —esan zion Mariak.

Bat-batean, Mariak hitz egiteari utzi zion, hitz egiten jarraitzen bazuen, min gehiago egingo ziola pentsatu zuen eta. Ez zuen negarrik egin nahi, ez zuen nahi Amaiak horrela ikustea, ahul.

—Maria, ez duzu nire aurrean indartsua izan behar, zu zaren modukoa izanda maite zaitut. Gurasoek gehiegi presionatzen zutelako egin du alde zure nebak; ezin zuelako gehiago jasan, ez dago beste arrazoirik. Sinetsi iezadazu. Zure nebak, begiratzen zizun bakoitzean, harro sentitzen zen; zortea sentitzen zuen zu bezalako pertsona bat zeukalako ondoan, nik bezala.

Mariak ezin izan zion erantzun, ia ito egiten zen malkoen artean. Amaia horretaz ohartu zenean, deia moztu zuen, Mariari pentsatzen uzteko.

Aste batzuk igaro ziren Jokin etxetik joan zenetik. Maria oso bakarrik sentitzen zen, baina Amaiak lagundu egiten zion, ahal zuen guztia egiten zuen Mariaren irribarreara ikusteko. Biek musika maite zutenez, beti abesten eta dantzatzen zuten elkarrekin. Maria abesten eta dantzatzen ikustea gustatzen zitzaion Amaiari, beti pozik zegoelako. Arnasa sakon hartu eta kantatzen hasi ziren, oihuka; hainbeste, ezen bizilagunek ere entzun egin zituzten.

—But you'll never be alone, I'll be with you from dusk till dawn, I'll be with you from dusk till dawn, baby I'm right here, I'll hold you when things go wrong, I'll be with you from dusk till dawn, I'll be with you from dusk till dawn, baby I'm right here...

Azkenaldian, Maria oso pozik zegoen, 2 hilabete igaro ziren nebak etxetik alde egin zuenetik. Beti zegoen dei, posta elektroniko edo mezu baten zain, baina inoiz ez zen ezer ailegatzen. Bere gurasoek gehiago eztabaidatzen zuten, gehiagotan eta ozenago; hainbestearino, non entzungailuek ere ez zuten oihu horiek entzutea eragozten; entzuten jarraitzen ziren.

Gau batean, ama Mariaren gelara igo zen.

—Gabon, maitea. Gauza bat jakitea nahi dut. Badakit, azkenaldian, garrasi asko entzuten ari zarela, baina ez kezkatu, zure aitak eta biok elkar maite dugu; besterik gabe, zaindu egin nahi zaitugu.

Mariak oihu egin nahi zion, zein bakarrik sentitzen zen esan, baina ez zion hori esan, ez zuen bere ama kezkatu nahi.

—Hainbeste maite baduzue elkar, zergatik eztabaidatzen duzue horrenbeste? Etxe honetaz nazkatuta nago, inork ez dit kasurik egiten, zuen onuran baino ez duzue pentsatzen, ez nirean —esan zion Mariak.

—Ulertzen zaitut, Maria, benetan, baina egoera hau amaitu dadin saiatzen ari naiz, laster ondo egongo gara.

Amak ez zion utzi erantzuten eta azkar irten zen gelatik, elkarriketatik ihesi. Maria pentsatzen geratu zen. Laster ondo egongo zirela? Ez zekien ama zertaz ari zen, baina ez pentsatzea eta lotara joatea erabaki zuen.

Gau hartan, dei bat jaso zuen.

—Kaixo, Jokin? —esan zuen Mariak, bere neba zela pentsatuz.

—Kaixo, Maria, Amaia naiz. Gauza garrantzitsu bat esan behar dizut. Askoz lehenago esan behar nizun, baina ezin izan dut. Espero dut egunen batean barkatzea —esan zuen Amaiak.

—Amaia, zer gertatzen da? Ez kezkatu, ez naiz zurekin haserretuko. Lasai egon zaitezke. Kontatu zer gertatzen den, mesedez.

Maria urduri jartzen hasi zen, Amaiak ez zuen inoiz negarrik egiten, oso indartsua zen. Bihotza hautsi zion bere lagunik onena honela ikusteak.

—Eskerrik asko, benetan. Gauza da... Bilbora noala bizitzera, amak duela hila-bete eta erdi esan zidan. Nire aitak ezin du ezer egin hori gelditzeko, dagoeneko saiatu da. Gaur arratsaldean joango gara —esan zion Amaiak, oso triste.

—Zer?! Broma da, ezta? Bai, bai, noski, broma da. Ala ez? Zergatik ez didazu lehenago esan? Zer zenuen buruan? Ez daukazu eskubiderik hori niri ezkutatzeko!

Mariak ez zuen negarrik egin nahi, negar gehiegi egin zuen azken hiletan, baina bere lagunik onena berarekin egongo ez zen ideia burutik pasatu zitzaionean, bere mal-koetan ito zen.

—Sentitzen dut, oso pozik zeunden, ia ahaztuta zenuen zure nebak alde egin zuela, ez nizun min gehiago eman nahi. Maria, inor baino gehiago maite zaitut, bar-
katu.

Mariak bezala, Amaiak malkoak zituen aurpegian, eta ia ezin izan zuen hitz egin, bihotza hautsita zuen.

—Ez! Ez da justua! Lehenengo nire neba, eta gero zu! Ezin naiz zu gabe bizi! Ez egin hau niri! Agur esateko gai ere ez naiz izango! Denek abandonatzen naute! —esan zion Mariak oso haserre eta triste.

Dena dela, Mariak ulertzen zuen Amaiak kontatu ez izana. Mariaren beraren onerako egin zuen, eta ezin zen berarekin haserretu. Ez zuen bi aldiz pentsatu; deia moztu eta bere buruari kolpeak jo zizkion zenbait aldiz, badaezpada, amesten ari zela-koan. Esna zegoela ikusi ondoren, entzungailu batzuk hartu eta itsaslabar batera joan zen, ikuspegiaz gozatzeko. Beti egiten zuen hori triste zegoenean, ikuspegi ederrek emozioak lasaitzen laguntzen zioten. Bizikleta hartu eta alde egin zuen. Ailegatu zenean, leku horretan behar zuen denbora guztia pasatzea erabaki zuen. 5 ordu eman zituen musika entzuten eta pentsatzen. 00:30ean iritsi zen etxera, eta harrituta zegoen iritsi zenean garrasirik entzun ez zuelako, ez zegoen inor eztabaidan. Egongelara hur-bildu zen gurasoak etxean zeuden ala ez ikusteko, eta harrituta geratu zen ama sofan eserita ikustean, ia negarrez.

—Ama, zer gertatzen da? —galdetu zion hark.

—Maria, kezkatuta nengoan, non zenbiltzan? Bueno, ez du inporta, etorri, gauza bat esan behar dizut —esan zion amak.

—Albiste txarra ez izatea espero dut, gaur bihotza hautsi didan albiste bat eman didate eta; ez nuke beste bat jasango —esan zion Mariak. Ez zuen Amaiak esan ziona gogoratu nahi.

—Dena zure esku dago; bakoitzaren ikuspuntuaren araberakoa da. Ikusi duzun bezala, aita ez dago etxe honetan, eta agian ez da bueltatuko —esan zion amak, munda-
duko normaltasun osoz, esaten zuenaz oso ziur, ezer gertatuko ez balitz bezala. —Zuen zaintza noren esku geratuko den ikusteko epaiketa astebete barru da. Ez beldurtu, ziur nago irabaziko dudala eta laster berriro ondo egongo garela.

—Hau ezin zait gertatu, niri ez. Ezin dut gehiago —esan zuen Mariak.

Ezin zuen sinetsi entzuten ari zena, bazekien gurasoak gaizki konpontzen zirela, baina ez zuen sekula pentsatu bereiziko zirenik.

—Horrez aparte, nork esan dizu zurekin bizi nahi dudala? Aitak ulertzen eta defendatzen nau; zuk, aldiz, ez nauzu ulertzen. Zurekin hitz egiten saiatzen naizen bakoitzean ez didazu kasurik egiten —esan zion Mariak, ama errudun sentiarazi nahian.

—Epaileak erabakiko du norekin geratuko zaren —esan zion amak, inolako inte-
resik gabe.

—Oraingoan ere ez duzu ni ulertzen saiatu nahi? Begira, badakit min ematen dizula zure senarra joan izanak, baina 4 hilabete daramatzat garrasi eta eztabaidak jasaten. Eta inork ez dit galdetu ea ondo nagoen. Nire lagunik onena Bilbora joan da bizitzera, ulertzen al duzu? Nire lagunik onena! Nire irribarrea eragin zezakeen bakarra. Baina, tira, ikusten dudanez, ez zaizula axola. Nire gelara noa —esan zion Mariak oso haserre; eta gelara joan eta ohean etzan zen.

Aste hura oso azkar pasatu zen, eta eguna iritsi zen: gizon batek independen-
tzia lortu arte norekin biziko zen esango zion eguna. Eraikinera iritsi ziren: kolore
marroi iluna zuen eta beldurgarria zen. Aita haien aurrean sartzen ikusi zuen, eta ez
zen etorri kaixo esatera ere.

Ama, abokatua eta hirurak sartu zirenean, gurasoen mahaiaren erdian eser-
tzeko agindu zioten Mariari, eta hori egin zuen, mahaiaren erdian eseri zen. Atea
nola irekitzen zen entzun zuen; epailea zen. Karpeta pare bat zituen esku artean.
Epailea eseri zenean hasi zen epaiketa. Mariak ez zion arreta handirik jartzen gura-
soen abokatuek esaten zutenari. Oso nekatuta zegoen, gau hartan ezin izan zuen
lorik egin. Ordu erdi zeramaten eztabaidan eta argudioak ematen zergatik bizi behar
zuen amarekin edo aitarekin. Mariak nahi zuen gauza bakarra handik ateratzea zen.

—Maria, bi abokatuek lan bikaina egin dutenez, berdinketa dago, norekin bizi
nahi duzun erabaki beharko duzu —esan zion epaileak.

Maria paralizatuta zegoen. Berak aukeratu behar zuela?! 15 urte zituen eta
bere etorkizuna aukeratzera zihoan. Ez zuen bere burua gai ikusten hori egiteko.
Alde batetik, bere ama zegoen, nahiz eta ez ulertu eta berarekin hitz egin ez, erra-
zagoa izango zen berarekin bizitzea, diru gehiago zuelako eta ez zelako mugitu
beharko. Horretaz aparte, ez zuen ikastolaz aldatu beharko. Beste aldetik, bere aita
zegoen, guztia onartzen zuen eta berarekin hitz egiten zuen. Beti defendatzen zuen
eta barre egiten zuten elkarrekin. Alde txarra ere bazuen: ez zuen hainbeste diru eta
hiriz eta ikastolaz aldatu beharko zuen.

—Ni...eee... —ezin zuen aukeratu, min handia egin zioten arren, asko maite
zituen. Bere gurasoak ziren. Ezin zuen haien artean aukeratu. —Barkatu—. Hori
esan eta gero, zalantzarik gabe, aulkitik jaiki eta kanpora jo zuen. Eraikina utzi eta
korrika hasi zen, ez zekien nora zihoan ere. Azkenean, betiko lekura joan zen, ero-
soen sentitzen zen lekura. Itsaslabarrera joan eta bistak ikusten eseri zen.

15 minutu eserita zeramanean, beso
batzuk nabaritu zituen sorbalden inguruan.
Ez zuen denbora gehiago behar izan nor
zen jakiteko. Jokin bere neba zen. Minutu
batzuk igaro ziren eta han zeuden, eserita
eta besarkatuta; ez ziren mugitu, ez zioten
elkarri aurpegira begiratu ere egin, seguru
sentitzen ziren. Azkenean, Mariak, malko-
en artean, esaldi bat esatea lortu zuen.

—Une honetan behar zaitut.



ABENTURA MUSIKALA

Sara Segade Ganuza
Ignacio Ellacuria-Zurbaran BHI

Niri txikitatik gustatu izan zait musika, amak beti jartzen zizkidan apalategietan zeuden diskoak afalostean. Nire bizitzaren parte izan da beti, momentu guztietan entzuten nuen musika: autoan, ohean, klasean..., leku guztietan.

Triste nengoenean, musika entzuten nuen; urduri nengoenean, musika entzuten nuen. Horrela izaten zen egun guztietan, musikan nuen interesa galdu zitzaidan arte. Bai, beti gustatu izan zait, eta jada ez nuen interesik. Behin, ez nuen lehen sentitzen nuen berbera sentitu; bai, gustuko nuen, baina ez zen berdina. Agian, nagusitzen hasia nintzelako edota azterketengatik, ez dakit, baina ez nuen lehen sentitzen nuena sentitzen.

Eskolan beti musikagatik ezagutzen ninduten lagunek eta klasekideek, eta hori aldatzea izan da urte berriaren nahia. Ez nuela gehiago kontserbatoriora joan nahi esan nion amari, baina berak ez zidan utzi, lelokeriak egiteari uzteko esan zidan eta kalera irten zen.

—Erosketak egitera joango naiz aitarekin, ordu eta erdian gutxi gorabehera bueltan egongo gara, afaltzeko —esan zidan.

—Ongi, etxeko lanak egitera joango naiz meriendatzen dudana bitartean —erantzun nion nik.

—Ados, zerbait behar baduzu, badakizu non dagoen mugikorra —esan zidan orduan aitak.

—Baiiii, gero arte! —erantzun nion jada nekatuta hitz egiteaz.

Nire logelara joan nintzen korrika txokolatezko bokata jateko gogoarekin. Aulkian jesarri eta matematikako ariketak egiten hasi nintzen. Bat-batean, egongelako telefonoa jotzen hasi zen. Trankil-trankil eskailerak jaitsi nituen gurasoak zirela pentsatu nuelako, galdetzeko ea zer egiten ari nintzen, betikoa. Baina gaurkoan ez, telefonoan Martaren zenbakia agertzen zen, ez nuen batere espero, baina presaka hartu nuen.

—Peio, zu zara? —galdetu zidan Martak.

—Bai, ni naiz, zerbait gertatu al da? —erantzun nion nik.

—Bai, zerbait harrigarria, etorri korrika Enekoren etxera. Ez duzu sinetsiko gertatu zaiguna —kontatu zidan. Eta nire erantzunari itxaron gabe telefonoa eskegi zuen.

Sukaldera abiatu, paper txiki bat hartu eta letra handiz jarri nuen: AITA, AMA, EZ KEZKATU ENEKOREN ETXEAN NAGO.

Hoberena hori idaztea zela pentsatu nuen, gurasoak erosketak egitetik bueltatzen baziren eta etxean ez nengoela ikusten bazuten, kezkatu egingo zirelako. Txandala, jaka eta zapatak jantzi, eta Enekoren etxera abiatu nintzen ahal nuen azkarren.

Martak zabaldu zidan atea, eta Enekoren logelara igo ginen. Han sekulako tramankulua zegoen ohe gainean, eta lurrean jesarrita Eneko, niri begira.

—Zer da hori? —galdetu nien jakin-min handiarekin.

—Herriko plazan topatu dugu eta hona ekartzea erabaki dugu —esan zidan Enekok.

—Botoi gorri bat dago hemen, eta hirurok batera sakatuko dugu, ados? —galdetu zidaten.


—Ongi —esan nien zerbait txarra ez zela gertatuko pentsatu nuen eta.

Botoiari sakatu eta gaztelu moduko batean agertu ginen. Bat-batean musika klasikoa entzuten zen. Hirurok, ezer ulertu gabe, elkarri begiratu eta soinuari jarraitu genion. Piano batekin topo egin genuen, gela bakarti batean; eta konturatu ginen teklak mugitu egiten zirela eta XVIII. mendeko musika jotzen ari zirela.

Gustatzen zitzaidan, baina jada asko entzuten nuen horrelako musika kontserbatoriora joaten nintzenean.

—Musika hau asko gustatzen zait —esan zuen Enekok.

—Bai, baina joan gaitezke botoia sakatzera berriro? Agian, beste leku batera eramango gaitu —esan zuen Martak.



—Noski! —erantzun nion nik. Azaldu ginen lekura bueltatu, bertan zegoen botoiari sakatu eta Enekoren logelan agertu ginen.

—Ez dakit zer gertatu den, baina zoragarria izan da. Beste garai batera joan izan bagina bezala izan da —esan zuen Enekok.

Segundo batzuk pasatu ziren, eta botoiari sakatu nion berriro gehiago pentsatu gabe. Oraingoan kalean agertu ginen. Inguruan ez zegoen inor, baina zarata entzuten zen kalearen amaieran. Etxeak altuak eta modernoak ziren, leiho handidunak eta koloretsuak.

—Non gaude? —galdetu zuen Enekok.

—Etorkizunean gaudela uste dut —erantzun nuen orduan nik.

—Ez da musikarik entzuten—esan zuen Martak.

Eta, orduan, urrunean, musika elektronikoa entzuten hasi ginen.

—Harrigarria! —oihukatu zuen Martak.

Pixka bat hurbildu eta mutiko bat ikusi genuen kontzertu batean, eta nahaste-mahai batekin lan egiten ari zela konturatu ginen. Asko gustatu zitzaigun, baina bat-batean handik desagertu eta foku batzuen aurrean agertu ginen. Neska bat zebilen saxofoia jotzen eta alboan mutil bat abesten jazza zirudien zerbait.

—Jazza da! —esan zuen Enekok.

—Bai! —erantzun nion nik.

Orduan pixka bat hurbildu ginen. Bertan egon ginen hamabost minutuz gutxi gorabehera. Gero, hoberena etxera bueltatzea zela pentsatu genuen, agian, gurasoak kezkatuta egongo zirelako. Bueltak eta bueltak eman genituen botoia aurkitzeko, baina ez zegoen modurik, ez genuen aurkitzen.

—Akabo, harrapatuta geratu gara betiko —murmurikatu zuen Enekok.

—Trankil egon, agertuko da, ziur —esan zuen Martak.

Bat-batean orri bat jausi zen zerutik. Letra oso txikia zen, baina ahalegina egin nuen irakurtzeko.

—Etxera bueltatzeko arauak direla uste dut! —esan nuen animatzeko. Eta altu irakurri nuen: «Etxera bueltatu nahi baduzue, ikasi duzuenarekin soilik lortuko duzue, hau da, musika estilo desberdinekin. Zuen gustukoa den zerbait abestu eta etxera bueltatuko zarete».

Ni, orduan, oso urduri jarri nintzen, ez nuelako lehen neukan kuriositatea edo gustua musikarekiko, eta ez nekien zer gustatzen zitzaidan. Gainerakoak gustuko zuten musika abesten hasi ziren, eta bakarrik geratu nintzen, pentsatzen eta pentsatzen. Orduan, erritmo bat hartu, abesti bat asmatu eta abesten hasi nintzen:

—Zer da hori?

—Nik asmatutako abesti bat, bakoitzak gustuko duena egin behar du, ezta? —esan nuen nik.



Gero, Enekoren etxean agertu eta etxera bueltatu nintzen. Pijama jantzi eta minutu batzuk pasatu eta gero, gurasoak agertu ziren eta honela esan nion amari:

—Ez dut kontserbatoriora gehiago joan nahi, gustuko dudana egin behar dut eta lagunekin talde bat sortuko dut gustuko dugun musika jotzeko.

Amak irribarre batekin begiratu zidan.

—Aurrera, hori zen nahi nuena, gustuko duzuna egitea —esan zidan besar-katzen ninduen bitartean.

ZABORRIK GABE ASKOZ HOBETO

Elvira Nuño Crespo
Ikasbide HLBHIP

Kaixo, Ilar izena dut eta ozeano-hondoan bizi naiz, zulo batean, egia esan. Izaki arraroa naiz, ez daukat izena gizakiek ez nautelako aurkitu. Ezkata zuriak dauzkat, zipriztin arrosekin apainduta. Ilunpetan, zipriztinek distira egiten dute, eta ilargia naizela dirudi (hortik izena). Balea urdina baino bi aldiz handiagoa naiz; eta oso handia naizenez, gainerako izakiak nire beldur dira, eta horregatik nago beti bakarrik.

Egun batean, dortoka bat etorri zen nire zulora, beldur aurpegia zeukan, baina ez zegoen beldurtuta nire itxuragatik, beste gauza bategatik baizik.

—Kaixo, lagunduko al didazu? Arazo handi bat daukat.

—Bai, noski. Zer daukazu? —galdetu nion.

—Nire familia arriskuan dago, itsasoan dagoen zaborraren eraginez, eta ezin dute ezer egin, nahaspilatuta daude zaborrean —esan zuen.

Hori esan zuenean, tristatu egin nintzen. Familiarik ez banuen ere, nire mai-teak arriskuan imajinatu nituen, eta ezin nuen pentsatu zer gertatuko zen galduko banitu.

—Zu oso handia eta indartsua zara; lagundu iezadazu, mesedez.

—Bai, lagunduko dizut. Eraman nazazu zure familia dagoen lekura.

Zulotik atera ginen eta igeri egin genuen dortokaren familia zegoen lekuraino.

—Tuga dut izena, bide batez. Zein da zure izena? —galdetu zidan.

—Ilar dut izena, ilunpean nire ezkatetik distira egiten dutelako.

—Zer polita! Egun batean zure ezkatetik ikusi nahi ditut.

Tugaren familiarengana heldu ginenean, plastiko poltsa batean katigatuta zeuden ama, aita eta anaia. Poltsa kendu nuen eta Tugaren familia libre geratu zen.

—Eskerrik asko! Ez dakit zer egingo genuen, lagundu ez bazenigu! —esan zuen amak.

—Ez horregatik. Nola ez nuen, bada, ezer egingo? —esan nuen. —Gauza bat, hona nentorrela zabor gehiago ikusi dut itsasoan sakabanatuta.

—Egia da, eta gainera animalia gehiago zeuden poltsetan eta soketan trabatuta. Zerbait egin behar dugu orain! —esan zuen Tugak.

—Bai, ideia bat daukat. Zer iruditzen zaizue zabor guztia batzen badugu eta mezu bat bidaltzen badiegu gizakiei? —esan zuen aitak.

—Bai! Hori da ideiarik onena. «Zaborrik gabe, askoz hobeto» jartzen badugu? —proposatu nuen. —Horrela, gizakiek konturatu gabe zenbat zabor botatzen duten ikusiko dute.

Ondoren, itsasoan zegoen zaborra batzen hasi ginen, irla moduko bat sortu arte, eta pixkanaka-pixkanaka, zabor horrekin letrak osatzen hasi ginen. «Za... bo... rrik... ga... be... as... koz... ho... be...to». Horrela, amaitu arte. Inguruan zeuden animaliak ikustera hurbildu ziren, oso harrituta.

—Zer egiten ari zarete? —galdetu zuen marrazo batek.

—Mezu bat idazten ari gara gizakientzat, haiek konturatu daitezen zer egiten ari diren ozeanoetan dauden animaliei —erantzun zuen Tugak.

—Zerbaitetan lagun dezakegu? —esan zuten arrain batzuek. —Gizakien arreta erakarri ahal dugu, eta hona ekarri, haiek hau ikusteko.

—Eskerrik asko! Hori oso lagungarria izango litzateke.


Denbora pixka bat pasa eta gero, oso azkar etorri ziren arrainak, eta ontzi handi bat etorri zen beraien atzetik.

—Laster! Jaitsi, gizakiek ez ikusteko—esan zuen batek.

Ontzia gelditu egin zen, eta bi minutu geroago sare handi bat bota zuen uretara, zaborra hartzeko. Zabor guztia batu zutenean, berriro igo ginen. Pixkanaka-pixkanaka ontzia urrunduta egin zen, desagertu arte. Hori ez zen zaborrarekin gertatzen, lastima.

«2011n, zabor irla handi bat aurkitu zuten Ozeano Barearen iparraldean, 710.000 km baino gehiagoko azalerakoa. Oro har, plastikoz osatuta dago. Ez daude botilak edo poltsak bakarrik, baita arroz tamainako plastiko partikulak ere. Mesedez, ez utzi hori gehiago gertatzen; planeta bakarra daukagu, eta zaindu egin behar dugu bertako bizitza ez hiltzeko».

Wij
Daarvoor
Kalela



D
KATEGORIA
(DBHko 3. eta 4. mailak)



NIRE KOPETA-ILE HORIAGATIK

Diego Carneros Regueiro
Nuestra Señora de Begoña LBHIP

Haizeak jotzen nau aurpegian, haize arin batek mugitzen dizkit kopetan pausatzen zaizkidan ileak. Nire aurrean, oso hiri xelebrea; bakoitza berera doa: batzuk lanera korrika, beste batzuk mugikorrari begira, beste batzuk eskolara, inor ez da konturatzen. Denak errutinak itsututa. Aurrera begiratzen dut. Presio ikaragarria dago nire gainean, baina aurrera egin behar dut orain nagoen teilatuan. Erru handiak eta bizitzeko gogo gutxi izateak beherantz begiratzera behartzen naute. Hiria ikusten dut; baina lehen presaka zebilen jendea orain argazkiak ateratzen ari da mugikorrekin. Malko bat jaisten zait aurpegian behera, eta hitz bakar bat esateko gai naiz hutsera salto egitera ausartu baino lehen: barkatu.

Nire ohean esnatu naiz, nire etxean, nire betiko etxean. Iratzargailuak belarria zulatzen dit, eta ama oihuka entzuten dut altxatzeko eskatuz. Arraroa



da. Amesgaizto hori dudan bigarren aldia da; baina nora joan behar dudan jakinda ez litzaidake axola izango lotan jarraitzea. Leku hura, batzuentzat ikastetxea dena, niretzat amets horiek edukitzearen erruduna da. Lukasekin eta bere lagunekin topo ez egitea, besterik ez dut espero; baina ez dut aukerarik, eta nire motxila hartuta, eskolara joan naiz.

Ikastetxerako bidean, pixkanaka beldurra nagusitzen ari zaidala sumatu dut. Apurka-apurka eskola beste eraikinen artetik irteten ari da; eta, beti bezala, berriro bizi nahi ez dudana errepikatzen behartuta nago, errutinaren esklabo. Sarreran zalantza sartu zait. Eta ihes egiten badut? Eta aurre egitea eta ekintzetara pasatzea erabakitzen badut? Nire lasaitasunarekin amaitu eta buruan harlauzek bezala zapaltzen naute galdera horiek. Klasean sartzen naizenean, ezer berririk ez. Ametsetan bezala, jende guztia bere erritmoan, bere gauzeekin, bere errutinekin... Orduan, Lukasek ikusi baino lehen, korrika joan naiz nire liburuak hartzera. 203. txarteldegira abiatu naiz, giltzarrapoa ireki eta behar ditudan koadernoak hartu ditut; baina konturatu naizenerako, otso bat bezala neukan atzean, harrapakinaren zelatan. Begiratu eta betikoa esan dit:

—Nora zoaz hain azkar?

Ni beldurdu nahi nau. Bera ekiditen saiatu naiz, ez diot jaramonik egin nahi. Ihes egin nahi dut.

—Utz nazazu bakean! —esan diot nik.

Beti jartzen duen aurpegi anker horrekin begiratu dit, aurre egin ezin diodan aurpegi horrekin.

—Ei, txo, ez adarra jo niri, gero; edo nahi al duzu parkean berriro elkar ikustea?

Buruaz ezetz esan eta alde egiten saiatu naiz; baina, lehenago, eskolan nire izen berria izatera pasatuko den hitza bota dit: «Tintin!». Eta gero barreak entzun dira korridore osoan zehar...

Bukatu da eskola eguna. Azkar joaten saiatu naiz lehenengo ateratzeko, baina alferrik da. Hor dago berriro, duela bi urtetik arratsaldero agertzen da. Nigana hurbiltzen da, eta neure burua gorrotarazten didan esaldia botatzen dit:

—Tintin, abenturetara joateko prest?

Iletik heltzen dit, ezizena oinordetzan jaso duen ile horail horretatik. Oraingoan ihes egin eta korrika hasi naiz. Etxera iritsi arte ez naiz gelditu. Etxean bakarrik sentitzen naiz seguru. Nire gelan giltzapetu naiz. Berriro ere harlauzak erortzen zaizkit burura, berriro ere ez dut erantzunik aurkitzen.

Eszena ia egun guztietan errepikatzen da azkenaldian. Haizeak berriro jotzen du nire aurpegian teilatu gainean, haize arina sumatzen dut bekokian jartzen zaizkidan ileak mugitzen. Nire aurrean, oso hiri xelebrea, bakoitza berera doa: batzuk lanera korrika, beste batzuk mugikorrari begira, beste batzuk eskolara, inor ez da konturatzen. Denak errutinak itsututa. Erru handiak eta bizitzeko gogo gutxi izateak aurrera egitera behartzen naute. Beherantz begiratzen dut, hiria ikusten dut; eta lehen presaka zebilen jendea orain argazkiak ateratzen ari da mugikorrarekin. Malko bat jaisten zait aurpegian behera. Iratzargailuak oraingoan ez du jo. Ez dut entzun. Ama ere ez dut entzun zutitzeko eskatzen. Isiltasuna besterik ez dago. Aske sentitzen naiz, zeren eta, azkenean, ez diot Lukasi aurre egin behar izango.

IZAR BAT OROITZAPEN BAKOITZEKO

Anne Andrés Sánchez
Artxandape Ikastola HLBHIP

Denbora aurrera doa konturatu gabe, eta, ohartzen garen momentuan, beranduegi da. Oroitzapenak baino ez zaizkigu gelditzen, gure iraganetik jaiotzen diren horiek eta beti hor daudenak, buruko tokiren batean. Batzuetan onak dira, besteetan ez hainbeste, baina gure bizitzaren zati garrantzitsu bat dira, kasu honetan, Noraren istorioan.

Nora bere gurasoek eta amonak osaturiko giro zoriontsuan hazi zen. Izugarri gus-tatzen zitzaion amona Ameliarekin denbora pasatzea, bere bizitza luzean gertatutako mila istorio eta esperientzia kontatzen baitzizkion. Bereziki berak hezi zuen, bere gura-soek denbora dezentente ematen zutelako etxetik kanpo, lanaren ondorioz. Baina haren jakituria handiari esker, funtsezko gauzak eta bizitzako ezinbesteko balioak irakasteaz gain, gauzak beste ikuspegi batetik begiratzen ikasi zuen. Zenbaitetan, Norak ez zuen ulertzen amonak igorri nahi ziona, nagusien gauzak zirela pentsatzen baitzuen; Ame-liak, ordea, beti bilatzen zuen modu originalagoa Norari esan nahi ziona esateko.

Behin, Noraren zortzigarren urtebetetzean, amona esku-ahurra nekez gaindi-tzen zuen opari batekin azaldu zen etxean. Neskak denetik imajinatu zuen; dena..., barruan kristalezko bola huts bat egongo zela izan ezik. Baina hor zegoen berezita-suna, ez zegoela hutsik. Hura astindu eta pixka bat hurbildu orduko, milaka izar jariatzen ikus zitezkeen.

—Hau ez da edozer gauza, magia egin baitzen! —esan zion amonak.

Hori esan zion momentuan, oparia gehiago atsegin zuela nabaritu zuen; egu-nero ez ziren magia egindako gauzak jasotzen.

—Baina ondo entzun orain esango dizudana, txiki. Zuk bola hau astindu deza-zun, egun on bat izan beharko duzu. Eguna amaitzerakoan, zerbait bikaina gertatu bazaizu, lorpen txiki bat izan baduzu, edo, besterik gabe, ondo eta zoriontsu sentitu bazara, orduan, bolan dauden izarrak ikusiko dituzu.

Eguneroko mila gertakizunak kontatzea maite zuen Nora alaiarentzat ez zen zaila izan beti bolarekin jolasean hasteko arrazoiren bat aurkitzea. Egun txarrak ere, osterak, egun ziren, dezente, egia esanda. Horrelako egunetan, nahiago izaten zuen objektua ikusi gabe oheratu, lotsatu egiten zen bolari begiratu eta izarrak distiratsu ikusten ez zituenean. Alabaina, hori gertatzen zen bakoitzean, hurrengo eguna zoragarria izateko edozer egiten zuen. Batzuetan ez zen hain «ona», baina «onarga-rria» bihurtzen zen behintzat, gau horretan izarrak behatzeko.

Horrela 4 urte inguru igaro ziren; egun onak izan nahian, kaskarrak gainditu eta izarrak ikusteaz gozatu zuen. Baina nerabezaroan sartzen hasi zenean, beirazko bola batekin jolastea haurren kontua iruditu zitzaion. Beraz, gau hartan, egun on bat izan ondoren, Norak ez zuen esfera maitea berriro astindu.

Bizitzak aurrera jarraitu zuen, eta laster, gure pertsonaia Derrigorrezko Biga-rreren Hezkuntza ikasten hasi zen. Bizitzaren garairik onena, errepikatzen zioten beti. Norak ez zuen ulertzen zergatik ikusten zuten dibertigarri. 6 ordu baino gehia-go eskolan igarotzea, asteko 5 egunetan, gustuko ez zituen gauzak ikasten eta gai-nera 8 hilabetez? Ez, hori ez zen beraren gustukoa. Asko kostatu zitzaion ikasturtea aurrera ateratzea; eta amaierara iritsita, lan eta ikasteko gai amaigabeen artean itotzen ari zen Nora. Egoera guztiz okerragotzeko, ekainaren 2an, 80 urte zituela, amona Amelia hil egin zen eta Norak hondoa jo zuen.

Amonaren heriotzak suntsituta utzi zuen. Osatzen zuten familia txikiaren eus-karria zen amona, eta joan zenean, puzzlearen piezak askatzen hasi ziren. Guraso-ek gero eta ordu gehiago igarotzen zituzten etxetik kanpo, eta berak logelan.

Egun batean, notak jaso eta gero, haserre iritsi zen etxera, eta hain indargabe sentitu zen, ezen logelan testuliburu guztiak indarrez jaurtitzen hasi baitzen. Baina bihotz taupadak gelditu zitzaizkion beira puskatzen entzuterakoan. Segundoak igaro ziren berak eragin zuenari aurre egitera bere burua behartu baino lehen, eta bere bolaren kristalak lurrean ikusteak mindu egin zuen. Amonak utzi zion gauza bakarra lurrean mila zatitan suntsituta zegoen orain. Baina momentu horretan hainbat gauzaz konturatu zen: ahaztu egin zitzaion bere buruaz arduratzea, baita motibatuta egotea eta baikorra izatea ere. Ezin zuen horrela jarraitu; amonak ez luke horrelakorik onartuko!

Hurrengo egunean, Nora ez zen eskolara joan, eta denbora hori gela eta bere burua antolatzen igaro zuen. Zaila izan zen, baina ez ezinezkoa. Zerbait falta zi-tzaiola iruditu zitzaion, eta bere ohean eserita zegoela, atea baino ez zegoen horma zuri baten aurrean, bat-batean ideia bat bururatu zitzaion. Bere aurrezkiak zeuden zorroa hartu eta etxetik atera zen lehenbailehen. Drogeria batera abiatu zen eta bertan lau pintura-bote erosi zituen, bi beltz eta bi zuri.

Logelara bueltatu zenean, pintzel bat hartu eta horma osoa beltzez margo-tzen hasi zen. Gero, ahal zuen izarrik ederrena irudikatu zuen bere buruan. Jarraian, margo zuria hartu eta izar hori margotu zuen horman: amamaren izarra zen. Hori eginda, Noraren burua bakean geratu zen.

Horrela, urte batzuk gehiago iraungo zuen ohitura berri bat sortu zuen: pintzela hartu afaldu ondoren, leku egokia aurkitu eta izar bat irudikatu, izar bat oroitzen on bakoitzeko.

Egunen batean, margotzeko hormarik gabe geldituko zen Nora, aspaldiko egunak islatzen zituzten izarrez beterik egongo zen eta. Baina ordurako ez zuen garrantzia izango, ulertuko zuelako ez daudela egun onak eta txarrak bakarrik, dena ez delako zuria edo beltza. Noizbait egun grisak izango zituen eta ez zen ezer txarra izango. Egun hartan, Norak ulertuko zuen hori dela bizitza.



BIDAIA BAT NIRE AMETSETARA

Uxue Rodriguez Muñoz
Ikasbide HLBHIP

Ibai dut izena eta 14 urte ditut. Amarekin bizi naiz, pisu txiki batean. 7 urte nitue-
nean, aita hil zitzaidan eta haren falta igartzen dut oraindik. Gainera, batzuetan,
ametsetan nagoenean, ikusi egiten dut eta erreala dela iruditzen zait. Ilusioa gal-
tzen dut, baina, egia esanda, berarekin ematen dudan denboraz gozatzen dut.

Goiz osoa eman nuen ikastolan, eta etxera iristean, ama makarroiak eta oilas-
koa prestatzen zebilen. Jan eta gero, etxeko lan asko nituenez, horiek egitera joan
nintzen; arratsalde osoa eman nuen horretan. Gaueko hamarrak zirenean, afaldu
eta gero, amari gabon esan eta ohean sartu nintzen. Laster lokartu nintzen, neka-
tuta nengoen. Batzuek diote ez dutela ezer amesten, baina beti amesten dugu zer-
bait, nahiz eta askotan ez gogoratu. Gau hartan nire betiko ametsa errepikatu zen,
eta oraingoan benetakoa zirudien. Goizean, begiak ireki eta aita ikusten nuen ni
esnatzen.

—Gora, Ibai, berriro lokartuko zara eta.

Benetakoa zen? Pelikuletan bezala atximurka egin nuen, eta min eman zidan.
Ama lo zegoen, aitaik gosaria prestatu zidan eta klasera joan nintzen. Bueltatu nin-
tzenean, aita eta amarekin jan nuen. Etxeko lan asko ez nituenez, futbolean jolastera
joan ginen, garai zaharretan bezala. Gero, dutxa hartu eta azkenik hirurontzako pizza
bat prestatu eta afaldu genuen, *Goazen* filma ikusten, gure gustukoenetako bat.

Hurrengo eguna larunbata zen, eta gurasoekin karting pista batera joan nintzen. Bokata bat eraman genuen jateko, San Mames-en jango genuelako Athletic-en partidua ikusten. Etxera itzuli ginenerako, zortziak ziren. Dutxatu egin nintzen eta afaldu egin genuen; patata tortilla. Oso pozik pasatu nuen egun hori, baina nekatuta nengoen; ondo etorriko zitzaidan lo egitea.

Igandean, ohetik altxatu eta ama bakarrik ikusi nuen. Aita supermerkatu-
edo joan zela imajinatu nuen, baina ez zen horrela izan. Amari galdetu eta esan zidan aita ez zela gurekin egon.

Beharbada, aitarekin eman nituen bi egunak amets bat besterik ez ziren izan, baina nire irudimenean izan arren, nire aita modu errealistagoan «ikusi» ahal izan nuen, zeren, azken batean, horretarako daude ametsak, ezta? Batzuetan, beldur eta larritasun uneak pasaraziko dizkizute; baina, beste askotan, haiei esker, abentura asko bizi izango ditugu, eta eskertu egin beharko genieke. Ez zait inoiz ahaztuko aita ez dagoela gurekin, baina ametsei esker, noizean behin ikusi egin dezaket, nahiz eta pribilegio horretaz nik bakarrik gozatu.

ZEIN DA AMETSEN FUNTZIOA? GARUNAK
LOALDIAN BETETZEN DUEN FUNTZIO
GARRANTZITSU BAT OROITZAPENAK BAZTERTZEA
ETA HAUTATZEA DA. AMETS EGITEN DUGUNEAN,
GURE BURMUINA SATATZEN DA EGUNEAN ZEHAR
DITUGUN ARAZOAK KONPONTZEN.





ETORKIZUNA

Carolina Alonso Álvarez
Ikasbide HLBHIP

Salto batekin ohetik altxatu nintzen, korrika joan nintzen sukaldera gosaria hartzera, motxila prestatu nuen eta ikastolara abiatu nintzen. Oso urduri nengo. Ikastolan, gure lehenengo *denbora-txangoa* egingo genuen etorkizunera. Denbora-makina duela urte bat edo bi asmatu zuten, baina azkenik iritsi zen gure ikastolara. Ezin nuen auto hegalaria eta etorkizuneko estralurtarrak edo elefante arrosak ikusteko itxaron.

—Dakizuenez, gaur, urte batzuk aurrera bidaiatuko dugu: berrehun eta hamazazpi, konkretuki —esan zuen irakasleak. —Gobernuko talde espezializatu honekin batera joango gara —esan zuen, arbelaren aurrean zegoen gizon taldea seinalatuz. —Haiek bakarrik dakite «beste aldean» zer dagoen.

Autobusez eraman gintuzten eraikin erraldoi batera. Sartzerakoan, lehenik izugarrizko makina konplexu bat ikusten zen: ate moduko bat, material arraro batez inguratuta eta botoi eta kable ugarirekin. Denbora-makina zela pentsatu nuen. Sartu baino lehen, trajedun gizon batek jakinarazi zigun etorkizuna pixka bat arriskutsua zela, eta esan zigun ez zela guztiz derrigorrezkoa bertan sartzea. Bazirudien klasean ez zuela inork gizonak esandakoa entzun, guztiok nahi genuen bidaia egin. Nork ez dauka jakin-mina?

Segurtasun trajea jantzi genuen eta bikoteka sartzen hasi ginen. Sartu baino lehen, gauza bati erreparatu nion: makinako pantaila batean 2 zenbakia agertzen zen, handi. Ez nion garrantzia eman, baina oso arraroa iruditu zitzaidan. Atea gurutzatzen genbiltzan bitartean, badaezpada, nire bikotekideari galdetu nion:

—Zenbat urteko bidaia izango dela esan du?

—Berrehun eta hamazazpi.

Etorkizuna zapaldu nuenean, asko harritu nintzen. Ez zen nik imajinatu nuen bezalakoa. Eraikinak eta etxeak suntsituta zeuden; ez zegoen zuhaitz bat ere; zerua oso hodeitsu zegoen eta izugarritzko beroa egiten zuen.

—Ikusten duzue, etorkizuna ez da pelikuletan marrazten duten bezalakoa —esan zuen trajedun gizonak— Kutsadurak, gerrek... hau eragin dute. Gobernuak ezin du ezer egin, hau da gure zigorra.

Klase guztia isilik geratu zen, baina bat-batean trajedun gizonak isiltasuna apurtu zuen.

—Zorionez, hau denbora asko barru gertatuko da eta beti dago irtenbide bat. Orain, familia bat bisitatuko dugu.

Etxe arraro eta txiki batean sartu ginen. Familia oso txiroa zegoen bazkaltzen. Pena eman zidan. Nire familia bezalakoa zen: ama, aita, zazpi urteko neskatxo bat eta hamasei urteko mutil bat. Gainera, ia gure itxura berdina zeukaten; hemeretzi urteko arreba bat bakarrik falta zen nire familia bezalakoa izateko.

Sartu bezain laster, hamasei urteko mutikoari begiratu nion, eta hark niri. Bere aurpegia guztiz aldatu zen. Bazirudien oihuka hasiko zela, eta bat-batean lurrera erori zen. Konortea galdu zuen. Gurekin zetozen gizonak mutikoa eraman zuten, ez dakit nora. Guztia oso arraroa zen.

Txangoa amaitu zenean, trajedun gizonak ezer ez kontatzeko esan zigun eta konfidentzialtasun akordio bat sinatzera behartu gintuen.

Etxera iritsi nintzen eta telebista piztu nuen. Berriak zeuden ipinita. Kazetari bat zegoen zabortegei baten aurrean: «Kontaminazioa eta gerrak direla eta, munduari ehun urte baino gutxiago geratzen zaizkio». Barregura eman zidan, baina pixka bat larrituta nengoen.

Asteak pasa ziren eta berri horretan pentsatzen jarraitzen nuen oraindik. Ama negarrez sartu zen atetik eta bizitzan eman didaten berririk txarrena eman zidan: Lorea, nire arreba nagusia, erradiazioagatik hil zen. Nire bizitzako momentu triste-ena izan zen. Egun horretatik aurrera, guztia izan zen tristura nire familiarentzat: gurasoak lanetik bota zituzten, eta gatazka armatuak zirela eta, etxetik mugitu egin behar izan ginen. Gezurra zirudien nola aldatu zen gure bizitza 2 urtean.

Egun batean, sukaldean geunden bazkaltzen. Gauza arraro bat sentitu nuen, *Deja vu* baten antzeko zerbait. Bat-batean hiru gizon arraro sartu ziren etxean. Ez nekien non, baina banekien lehenago ikusi nituela. Haien atzetik Gizartea irakasgaiko irakaslea sartu zen. Agurtu egin nuen eta galdetu nion ea zergatik zegoen hemen, baina begiratu bakarrik egin zidan, ez zuen ezer esan. Segundo batzuk geroago, trajedun gizon bat sartu zen eta hamalau urteko hogeitasei neska-mutil. Nire hamalau urteko «Ni»ari begira geratu nintzaion, galdera ugari egiteko eta oihukatze prest; baina zorabiatu egin nintzen eta konortea galdu nuen.

Bat-batean, denak zentzua hartu zuen, banekien zer gertatzen ari zen: duela bi urte Gizartea irakasgaian egin genuen txangoan etorkizunera egindako bidaia batean bisitatu genuen familia tristea gure familia zen, bi urte geroago. Orain ulertzen dut zergatik zeukan familia txiro hark nire familiaren antza. Zergatik familia hartan nire arreba bezalako 19 urteko neskatila falta zen, eta zergatik etxe hain txikian bizi ziren. Orain ulertzen dut zergatik denboraren makina hartan 2 zenbakia agertzen zen. Orain dena ulertzen dut.

Baina, zergatik? Zergatik ez digu inork esan hau gertatuko zela?

EGUN EURITSUA NEW YORK-EN

Ainara Salas Gómez
San Adrián BHI

Egun euritsua zen hura. Etxetik irten nintzenean ez zuen euria ari, baina ziurtatu dezaket bosgarren etorbide osoa zeharkatu nuela jakarekin estalita. Beti bezala, lan egitera joan baino lehen, The Blue Box Café-n kremarekin mozutako deskafeinatua eta croissant bat gosaltzen nenbilen. Hogei urteko gizon ezkongabea naiz eta ziurtatu dezaket sukaldaritza ez dela nire indargunea.

Tiffany's-eko bitxiak biltzen dituen kutxatxoaren omenez jarri zioten kafetegiari Blue Box Café izena. Tiffany's bitxigintza eta urregintzako enpresak eta kafe-tegiak lankidetza mota bat dute. Zeru urdin kolore ezagunaz margotuta dago kafe-tegia, eta ipuin batean zaudela ematen du. Dekorazioa urdina eta zuria da. Oso leku alaia eta aproposa da, gosari berezia hartzeko. Oso luxuzko lekua da, New York-eko jenderik aberatsena bakarrik joaten da.

Hamar urte daramatzat kafetegi honetara joaten. Nire amaren gogokoena da, eta berak ere antzeko hainbat ezaugarri ditu. Nire ama pertsona alaia eta maitekorra da, zalantzarik gabe, oso emakume miresgarria. Tiffany's dendako bilduma handia du. Azkenaldian, belarritako bikainak janzten ditu beti. Nire aita bizirik zegoenean, ez zituen sekula janzten, beti pentsatu izan dut ez zituelako gustuko izan zela. Agian, orain bizi ez denez, bera gogorarazten diotelako janzten ditu.

Kafetegira ailegatu nintzenean, James-ek agurtu ninduen. James, ama eta aita lagunak ziren gazteak zirenean, horregatik James nire bigarren aita balitz bezala da. James sentimendu onak dituen gizon zintzoa da, familia onekoa, baina ez nirea baino hobeagokoa. Nire amak dioenez, aitak beti gogorarazten zion hori eta batzuetan jasanezina izan zitekeen.

Jamesek nire aitak baino gehiago lagundu zidan beti. Ofizio bat aukeratzekoan, nire ametsei jarraitu behar niela irakatsi zidan. Nire bizitza osoa horri eskainiko nion, eta hobe zen nire interesen arabera aukeratzea. Horrek amorru handia piztu zuen nire aitarengan eta era guztietako harremanak moztu zituen. Aita hil zen arte ez genuen berriro harremanik izan.

Kafetegiko korridorera abiatu eta koadro berriak jarri zituztela konturatu nintzen. Margolanetan, noski, kafe-etxean egondako familia garrantzitsuak agertzen ziren. Koadro batean legenda hau irakurri nuen: “Mattias Allen, Elisabeth Allen eta James Edwards”. Ezkondu berri ziren nire gurasoak, Jamesekin batera. Jamesek ez zuen oso pozik zegoen itxura, bere lagun onenentzat egun zoriontsua izan arren.

James niregana hurbildu zen eta komentatu zuen ama ederra zela eta nire aitak bezala beti trajea eramaten zuela. Tonu mingotsa nabaritu nuen haren aho-tsean, baina ez nion garrantzirik eman.

Lanegun luze baten ondoren, etxera etorri eta bakarrik sentitu nintzen. Nire bizitza ohikoa zen eta konpainia behar nuen. Amari deitzea erabaki nuen afaltzera etortzeko esateko, eta onartu egin zuen. Gero Jamesi deitu nion, bere Espainiako ardoen kartatik botila bat ardo ekarri zezan animatzeko.

Ama emakume dotorea zen eta lasaitasuna erakusten zuen. Ordu erdi pasa ondoren, norbaitek atea jo zuen. James zen dotore-dotore jantzita. Elkarrekin egongelara ailegatu ginen eta nire ama ikustean harritu egin zen.

—Ahaztu egin zait hirurentzako afari bat zela esatea.

Jamesek amaren belarritakoak goraipatu zituen eta amak lotsati irribarre egin zuen. Zerbitzariak janaria prest zegoela esandakoan, hirurok jangelara abiatu ginen. Afaria bi lagunentzat zegoen prest. Jaka eta aterki berria hartu nituen, eta galdetu baino lehen alde egin nuen, elkarrekin egoteko eginda dauden bi pertsona batu nituela jakitun. Kalera atera nintzenean, egun euritsua zela konturatu nintzen, baina oraingoan aterki bat nuen.



A stylized illustration of a person with long, flowing hair, wearing a yellow top and a blue skirt, standing against a background of green foliage and a blue sky. The person is depicted in a simple, graphic style with a white face and a yellow top. The background features green foliage and a blue sky.

C eta D kategoriak



HABIA HUTSIK DAGO!

Peio Elorriaga Legarreta
Kirikiño Ikastola HLBHIP

Udaberria heldu da. Negua duela gutxi bukatu da. Temperaturak gorantz egin du eta zelaietan intsektu ugari hautematen dira. Etxean nago eta lorategira abiatu naiz. Bertan zuhaitz bat dago, eta udaberri guztietan bezala, bertako adar batetik zintzilikaturik txorientzako habia prest dugu, hain zuzen ere, enarentzat.

Dakigunez, klimaren eta ingurumenaren baldintzen aldaketak beste aukera batzuk bilatzera behartzen ditu lekuko bizitzara moldatu ezin diren hegaztiak. Hori dela eta, hegazti espezie batzuek distantzia luzeak migratzen dituzte, eta garai honetan leku epelak topatzeko asmoz, zehatz-mehatz enara ugari, gure herrira etorzen dira deskantsatzera.

Nik habia prestatzen diedanez, nire lorategiko zuhaitza bisitatzen etortzen dira. Egun horietan biziki harro sentitzen naiz. Txoriek, bertan, aste pare bat pasatzen dute, loditzen eta indarrak hartzen,



hurrengo hegaldia abiatu aurretik. Enara hauek Kantauri itsasotik Nafarroako Piri-nioetarantz abiatuko dira gero, eta handik Afrikarantz.

Egunak pasatu ziren eta ez zen txori bakar bat ere ageri gure lorategian. Amaren gana joan nintzen kezkatuta.

—Ama, udaberria aspaldi heldu da eta ez dugu txori bakar baten kanturik ere entzun —esan nion amari.

—Badakit, semetxo... beharbada aurreko urteetan etortzen ziren txori horiek bidean hil dira. Baliteke, hona heldu orduko, atsedenaldirako leku nahikorik aurkitu ez izana, eta, ondorioz, elikagaiz hornitzeko aukera nahikorik aurkitu ez izana —erantzun zidan nire amak.


—Baina gure zuhaitza eta herri honetako beste auzokideen zuhaitzak prest daude —aipatu nion.

—Hori ez da nahikoa! Munduan 200 hegazti espezie baino gehiago daude eta herri honek ezin die denei ostatu eman —azpimarratu zidan amak.

—Hori ez da egia! Ezin dut ulertu zergatik ez dituzten kilometro gehiago hegan egiten habiak topatzeko —esan nuen haserre, eta egia esan, asko pentsatu gabe.

Amak ez zuen nirekin eztabaidatu nahi. Beraz, Urdabai Bird Center-en lan egiten duen nebari, hau da, nire osabari deitzea erabaki zuen. Nire osabaren lana turistei hegaztien migrazio prozesuak azaltzean eta haien ezaugarri guztiak kontatzean datza. Bera biologoa da eta hegaztietan aditua.

Kuriositate handia neukan munduan zenbat espezie dauden jakiteko, eta hegaztien inguruko migrazioen zehaztasun guztien jakin-mina ere sentitzen nuen; baina nire osaba ez zebilenez oso astitsu, laster moztu, eta hurrengo astean bere zentrotik pasatzeko gonbidapena egin zigun.



Amari eta bioi ideia primerakoa iruditu zitzaigun. Askoz ere interesgarriagoa zen behatoki pribilegiatuko teknologia moderno guztia erabiliz berak aurrez aurre

azalpenak ematea, telefonoz kontatzea baino. Bisitaren eguna eta ordua adostuta geneuzkan: apirilaren 15a, larunbata, goizeko 11:30ean.

Jakin-minez nengoenez, eguna heldu baino lehen, Interneten bidez txorien migrazioari buruzko hainbat bideo ikusi nituen, eta horrela, pixkanaka-pixkanaka ohartu nintzen gero eta zailagoa izango zela txoriak nire etxeko lorategira hurbiltzea. Bideo horietariko batek gehiegi hunkitu ninduen. Bere izenburua *Txorien migrazioa*, txorien bidaiarik arriskutsuena zen. Bertan, basoen deforestazioek, soroetan pestizidak erabiltzeak eta abarrek zein eragin larriak dituzten kontatzen zen. Ikaragarria!!!!

Presaka nenbilen, lagunekin jolasteko geratuta nengoelako; eta, hori dela eta, gehiagorik ez ikustea erabaki nuen, edo, zintzotasunez esanda, baliteke pentsatzea lar eragin zidala bideo hori ikusteak eta hori saihestu nahi izatea. Gainera, hurrengo larunbatean nire osabarekin geldituta nengoen, eta banekien hark inork baino hobeto zabalduko zizkidala begiak.

Hainbeste esperotako eguna heldu zen. Goizeko 10:15 ziren, eta ama, arreba eta hirurok autoz Urdabai Bird Centerera abiatu ginen. Autoa interpretazio zentroko aparkalekuan utzi genuen, eta zuzenean harrera gunera abiatu ginen. Bertan, gaur egungo protokolo arauak errespetatzeko eskatu ziguten, eta tenperatura neurtu eta eskuak hidrogelarekin koipetu ondoren, markatutako aulkietan jesartzeko eskatu ziguten.

Handik 10 minutura nire osaba heldu zen. Ez zetorren bakarrik. Emakume batekin zetorren. Emakumeak atzerritarra zirudien. Osabak elkar aurkeztu ondoren, ahoskeragatik emakumea frantsesa zela hauteman nuen. Edozein kasutan, emakumeak euskaraz ere ondo hitz egiten zuen.

—Hau Catherine da. Catherine Delamain, Jacques Delamain biologo frantsesaren iloba —esan zigun osabak—. Catherine, bere aitona Jacquesen moduan, ornitologo aditua da. Berak emango digu gaur hegaztiei buruzko hitzaldia, eta bukatutakoan, zalantza guztiak galde diezazkiokezue berari —jarraitu zuen nire osabak.

—Pozten naiz zuek ezagutzeaz —esan zigun Catherinek.

—Baita gu ere, eta mila esker zure alde zure aurretiko jarreragatik —erantzun genion guk guztiok batera.

Hitzaldiari hasiera eman zitzaion eta Catherinek mila gauza interesgarri plazaratu zituen. Oso hunkituta, hainbat galdera egin zizkigun: «Badakizue enara arrunten populazioa azken 20 urteetan % 40 gutxitu dela?», «Badakizue enara batek 3.500 km egin ditzakeela hegan 30 egunean», «Badakizue hegazti txiki hauei bizkarrean 0,6 gramo pisatzen duen geolokalizatzailak jartzen zaizkiela, migrazio ibilbideen ezagutza ahalbideratzeko?» —galdetu zuen Catherinek.

—Bada, ez... Nik ez nekien horrenbeste... —esan nion neure buruari.

Catherinek entzuleoi galdetu zigun ea zer zen gure ustez hegaztien migrazioa. Eta osabak ozenki esan zuen nik erantzungo nuela. Halako lotsa! Natur Zientzietan ikasitakoa baino ez nekien.

—Bada, negua edo ugalketa-garaia iristen denean, hegaztiek egiten duten bidaia da, bizirik irauteko lekuri egokienaren bila joateko asmoz.

—Oso ondo —esan zuen Catherinek—. Eta badakizue zergatik gaur egunean migrazio prozesu horiek ikaragarri murriztu diren, hau da, zeintzuk diren arrazoiak gero eta hegazti espezie gutxiagok irauteko bizirik Lur planetan?

Gainerako entzuleak ere parte hartzen hasi ziren, eta nik jadanik ezagutzen nituen arrazoiak aipatzen hasi ziren: basoen deforestazioa, hegaztien habiak puskatzea, zaborra edonon botatzea, soroetan pestizida gehiegi erabiltzea...


Bat-batean, zazpi urteko ume batek eskua altxatu zuen.

—Maskaren gomak —esan zuen zalantzarik gabe zazpi urteko umeak—. Zaborretara botatzen diren maskaren gomekin hegaztiek hankak harrapatzen dituzte eta horiek infektatu egiten dira eta ondorioz hegaztiak hil egin daitezke.

—Hara! Egia da... Ez naiz horretaz ohartu orain arte... Izugarria!

Espero genuen moduan, bisita sano hezigarria izan zen. Etxerako bueltan, nire buruan beste ideia berri bat zebilen hegan. Lehenengoa gure herrian txorientzako habia gehiago jartzea lortzea zen. Bestalde, bigarren baten alde borrokatzeko asmoa ere banuen. Banekien nire herrian erabilitako maskarak botatzeko biltegia zegoela. Panfletoen bidez, erabilitako maskaren gomak mozteko kanpaina zabaltzea erabaki nuen, jendea kontzientziatu nahian zein kalte handia egin diezaiekegun bizia eta alaitasuna ematen diguten txoritxoei. Horrek ez balu funtzionatuko, prest nengoen biltegi horretako maskarak pilatzeko eta eskularru egokiekin nik neuk gomak banan-banan mozteko.

Ez dakit azkenean aurten enarak nire lorategira hurbilduko diren, baina ziur nago, hurbiltzen badira, zoriontsu egongo naizela zuhaitz azpian beraien kantuak entzuten.



BIGARREN AUKERA

Haizea Maruri San Juan
Karmelo Ikastola IPI

Gutxien espero nuenean gertatu zen. Egia esan, ez nuen sekula pentsatuko gertatuko zenik ere. Baina urtea hasi berri genuen hartan hasi zen dena, kalean nintzela. Azkenaldian, triste nengoen eta bi aldiz pentsatu gabe egin nuen egin nuena. Aspaldi honetan amorratuta egon naiz eta, orain, azalpen bat zor dizuedala uste dut.

Denok ez dugu berdin kontatzen istorioa, zaila da ulertzea bestearen egia, horregatik irakurri gutuna bukaera arte, mesedez. Eta beharbada ulertuko duzue honen guztiaren zergatia.

Lehenik eta behin, neure burua aurkeztuko dizuet. Ni Coro naiz, 19 urteko gaztea. Txinako hiri batean jaio nintzen, Wuhanen, hain zuzen ere. Nire gurasoak duela gutxi banatu ziren, eta orain ama Estatu Batuetan bizi da eta aita Italian. Familia handia daukat. Neba-arreba askok osatzen dugu familia hori.

Gure kulturen, bestalde, asko maite dugu natura eta beti izan dugu harreman estua harekin, txiki-txikitatik. Gure ustez, zaindu eta maitatu beharreko altxorra da. Bizitza ematen diguna. Horregatik, ezin genuen onartu egiten ari zinetena. Badakit oso haserre zaudetela nirekin edo batzuek ez didazuela sekula ere barkatuko, baina oso arrazoi on bategatik hartu genuen erabaki hau.

Badakit gure hedapena amesgaizto ikaragarria izan dela zuentzat, eta horren ondorioz deitzen diguzuela Covid-19 pandemia.

Zuentzat urtebeteko amesgaiztoa baino ez da izan; guretzat, aldiz, zuek mendeetan izan duzuen naturarekiko jarrera izan da amesgaiztoa benetan. Ekosistema aldatu eta lurrak basamortu bihurtu dituzue, poloak urtu eta itsaso-maila igo duzue, espezieak iraungi, lehorteak eta suteak eragin, animalia eta landare espezieak hil... Ibaiek eta aintzirek gainezka egin dute eta deforestazioaren ondorioz, gero eta zuhaitz gutxiago ditugu Ama Lurrean.

Gu betidanik existitu izan gara eta zoriontsu bizi izan gara gizakiek natura errespetatu izan duzuen bitartean. Egia esan, azken hamarkadan ingurumenarekin izan duzuen harremana gero eta txarragoa izan da. Naturaren aldetik abisu batzuk izan dituzue, baina ez duzue kasurik egin: uholdeak, ipar-poloaren urtzea, tsunamiak, hirien kutsaduraren ondorioz gizakiek izan dituzuen gaixotasunak...

Momentu horretan erabaki genuen zuei eskarmentu bat emateko momentua iritsi zela, eta zuen gorputzetan sartzen hasi ginen, gaixotasunak sortzeko eta etxean gelditzera behartzeko. Beharbada, ez genuen ondo neurtu gaixotasunaren kaltea, baina benetan beldurtu zineten eta etxean gelditzeko beharra zuek zeuek ikusi zenuten. Beharrezkoa ez zenetan ez zenutela bidaiatuko erabaki zenuten, gutxiago kontsumitzen saiatu zineten, denda txikietan erostearen beharra ikusi zenuten, familiarekin kalitatezko denbora eman zenuten, norberaren burua gehiago ezagutzea lortu zenuten... Etxean egon zareten bitartean, animaliak libre ikusi ditugu eta beraien espazioa berreskuratzen joan dira. Zuek mendeetan kendu diezuen.

Zuen herrietako buruek hainbat arau edo debeku jarri dizkizuite eta orokorrean oso ondo bete dituzue. Arau horiei esker, zuetariko asko naturarekin harremana berreskuratzen joan zarete. Espero dut lezio txiki bat hartu izana eta gu guztiz desgertzen garenean, bide horretatik jarraitzea.

Covid-19ari esker, hau da, guri esker, lehen esan dudan bezala, bizitzan benetan zerk balio duen ezagutu duzue: adiskidetasuna eta elkartasuna, «maite zaitut» esatea edo besarkada bero baten samurtasuna... Hunkitu egin zarete honekin guztiarekin. Indartsuagoak egin zaituztegu zentzu askotan.

Espero dut gutun honekin zuetariko gehienek ulertzea ingurumenaren egoeraren larritasuna. Pixkanaka, guztiok gure kontrako txertoa jarriko duzue. Zuen bizitzatik betirako desagertuko gara. Baina, kontuz! Beharrezkoa bada, berriro bueltatuko gara, eta gu ez bagara, gu baino arriskutsuagoak diren gure lehengusu-lehengusinak, Super Covid-25ak, etorriko dira.

Beraz, zaindu natura, zaindu zuen inguruko jendea; nork bere burua zaindu eta zoriontsu izan guztiok.

Agur eta espero dut berriz elkar ikusi behar ez izatea.



AURKIBIDEA

Sariak	4
--------------	---

A Kategoria (Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak)

• Kontzertu zorua	9
• Zer dago itsasoaren bukaeran?	11
• Ez galdu itzaropena	14
• Pernando eta pilota	17
• Txorigorri	19
• Espazioaren bila espazioan	22

B Kategoria (Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak)

• Liburu bitxia	27
• Nik pentsatzen dut... ..	31
• Herria hirira	35
• Zuzendari iruzurtia	37
• Gabonetako zuhaitzaren desagerpena	39
• Ez utzi inoiz amesteari	41

C Kategoria (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailak)

• Dena ez da esan behar	47
• Minigona	49
• Une honetan behar zaitut	53
• Abentura musikala	58
• Zaborrik gabe askoz hobeto	62

D Kategoria (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailak)

• Nire kopeta-ile horiagatik	67
• Izar bat oroitzapen bakoitzeko	69
• Bidaia bat nire ametsetara	72
• Etorkizuna... ..	75
• Egun euritsua New York-en	78

MIKOLETA - BILBAO BALIOEN HIRIA

C Kategoria (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailak):

• Habia hutsik dago!	83
----------------------------	----


D Kategoria (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailak):

• Bigarren aukera	87
-------------------------	----



Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO



Atig
Shapin
Sholeta

Atig
Shapin
Sholeta

Atig
Shapin
Sholeta

Atig
Shapin
Sholeta

Atig
Shapin
Sholeta

Atig
Shapin
Sholeta

Atig
Shapin
Sholeta

Atig
Shapin
Sholeta